



GOIERRITARRA



**Beasainen ez da
atsedenerako
astirik**

 **GARMENDIA**
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

Tel: 629 46 95 26 Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA

**Edozein motatako
teilatuak egiteko
prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar**



AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

EUSKALDUNON

GIDA

KOMERTZIALA

Profesionalen zein merkataritza
alorreko zerbitzuen helbide eta
telefonoz osatua.

- 80.000 aleko tirada.
- Kolorez ilustratua.

Gidaren edukia:

Informatiboa:

Euskal Herriari buruzko
informazio eta datuak.

Komertziala:

banaketa sailkatua.
Herrialdeka,
Profesioak, Herrika.

Maiatzaren 23an
DOAN

Egunkaria rekin

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Jon Ordoñez, Jo-
sune Amondarain, Urko Irastor-
za, Edurne Albizu, Agurtzane Bi-
kuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrut-
xaga, Aitziber Murua, Amaia
Meoki eta Igor Aristegi.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.600 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Zumalakarregi museoa:

10 urteren ondoren, berrikuntzak

Zumalakarregi museoa birmoldaketa inauguratuko da maiatzaren 26an, goizeko 11etan. Museoak 10 urte betetzen dituen egun berean izango da inaugurazioa. Gaur egungo beharretara egokitu nahi izan dute museoa.

Hiru urte eman dituzte bertako langileek berrikuntza formal eta kontzeptuala burutzeko: pieza originalen eskurapena; baliabide museo-ografiko berrien behaketa; gerra eta bakea gai dituzten abangoardiako museo eza-gupena eta haien proposamen didaktikoen azterketa, geure inguruaren bilakaerari erreparatuz. Lan honen emaitza da orain inauguratzen den birmoldaketa, historia museo berrizko Zumalakarregi boletina eta Gerra eta Bakea Zumalakarregiren Garaian ikasleentzako ibilbide berria.

Era honetan, museoan, objektu original gehiago jarri dituzte ikusgai: uniformeak, armak, irudiak eta dokumentuak, azken urteotan eskuratutako piezak.

Guztiak erakutsi eta aurkezteko teknika berrienak aplikatu dituzte, bisitaldia erakargarriago eginez, hobeto ulertu eta barnera dadin.

Zumalakarregiren beraren balio bikoitza, pertsonaia historikoa eta alegiazkoa, ere nabarmendu dute.

Gizarteari interesatzen zaizkion arazoei heldu die Zumalakarregi museoan, oraingo eta hemengo gaiei buruz gogoeta egiteko proposamen ausartak eginez.

Azkenik, gerra eta bakeari buruzko hausnarketarako gonbidapena izateko asmoa duen ibilbide didaktikoa prestatu dute.

BOTA BERTSOA



Alaitz Alustiza

(Goierriko bertso-eskolako ikaslea)

**Etzegarateko
bikoizketa**

**Doinua: zortziko
handiko edozein.**

Etzegarateren desdobletan hainbeste arazo dago agintedunak besterik gabe ez egitea nahiago istripu maila egunez egun geroz eta areago batzuen hitzak balio dute premiak baino gehiago.

Protesta asko manifestaldi dena ekintzez beteta desdoblatzea onartu zuten beteaz gure apeta lehen fasea amaitu dute eta ez da berriketa poztu gaitezen zerbaiterako balio izan du eta.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eskubideak eta obligazioak elkarri lotuta daude

1999ko urtea mundu guztiko zaharren urtea dela eta, zerbait esatea pentsatu dut, zaharrak erabiltzeko joera gehiago dagoela uste dut, nortasunera bultzaz laguntzekoa baino.

Zaharrak gizartean bakoitza bere buruaren jabe den bitartean, bat gehiago bezala bizi behar du, bakoitzak bere burua administratuz eta, hortarako gizartean beste edozeinek bezalako diru sarrera behar du eta bakoitzak izan behar luke eskubideen eta obligazioen erantzunkizuna eta, horrela nortasun gehiagorekin sentituko da eta, hori pertsonarentzat oso ongarria dela uste dut.

Alderantziz, gaur egungo antolamendu horrek umilazioa dakarrela uste dut, edozein lekuetara joanda ere,

erosketak merkeago egiteko zahar txartelak, horrek gizartean obligaziorik gabe uztera garamatza eta, baita ere mundu honetan ez garela ezertarako pentsatzaraztera. Norbaitzuk esango dute, nortasuna zahartzaroarekin galtzea nahitaezkoa dela, ba, nik zaharrak ezagutu ditut nortasunarekin, zerbaitetarako gauza naizela hiltzea nahiago dut, landareak bezala bizitzea baino. Nik nortasuna maite dut eta, nortasuna zaintzen saiatzeko obligazioa daukat.

1999-03-09ko Egunkariaren azalean, martxoaren 8ko emakumeen manifestazioko pankartak honela zion: 'Emakumeok gure eskubideak borrokatuz'.

Mundu honetan zapaltailerik gabe ez dago zapalduarik, nortzuk dira zapaltzaile horiek? Eskubideak

errespetatuak egonez gero, ez dago borrokatu beharrik, emakumeak gizonak baino zapaltzaile gutxiago direla, hori zergatik? Nik dakidana da Euskadi Irratian emakumeak direla gehienak, oinarri oinarriko nortasun eskubidea zapaltzen dutenak, emakumea edo gizona den begiratu gabe zapalduaz.

Karlos Santamaria nire ustez oso gizon jatorra eta Eskubideei buruz asko hitzegin zuen gizona zen. 1969ko apirilean Billa Santa Teresan Ulia mendian, Gandiren bizitzaz eta dotrinaz hitzegiten ari zela galdera izan zuen, ea Gandik Konstituzioan armamentu guztiak sortzearen kondena ezarri zuen eta, zuzenean ez zion erantzun baino, honela erantzun zion, munduan gaur egun armak kentzeko baldintzarik ez zegoela eta, Euskal Herriak ere bere nortasuna izango bazuen armak

beharko zituela, ez zekiela behin ere gizartea hortara iritxiko zen baina, gaurkoa baino gizarte hobeago bat beharko zuela hortara iristeko.

Garbi dago gizon eta emakume denetan daudela eskubideen zapaltzaileak. Nik deseatzten dut, bai emakume eta gizon, elkarren artean sortu daitezela benetako eskubideen aldeko borrokatzaileak.

Patxi Otaegi

Lirain

LURRINDEGIA

OPARI GAIAK

ORAIN ORDIZIAN ERE ZABALIK!

Garagarza plaza, 1 ☎ 943 80 53 27 ORDIZIA

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN

TXANDAKA

Ni naiz

"Zuretzat nere amets guztiak"

LIF

Bentara joan eta oraindik itzuli ez dena, hori da poeta. Bentan hartu zuen ostatu, gau ekaiztsu haren desasoseguak errebelatu zion zein diren politak bizitzaren joan-etorriak bide-bazterrera alderatu eta handik begiratzuz gero. Zuretzako larrosa bila joan zen eta krabelin bilakatu nahi izan zuen, zuretzat. Ezin zuen gehi-ago ezintasunez sufritu, Sufrimendua idatzi egin nahi zuen, osotan, eta ahal baledi hasperen bakar batean guztia bildu, argia eta itzala, espiralaren luzera infinito ezin bukatua. Etxeko giltzak kale kantoi batean eskegi zituen, zer egiten duen ez dakienaren jakinduria beteaz. Biharamunean, ondo ikasia zuen berak igandeko eten melankolikoetan, atsegina-
goa baita mina irakurri eta irudimenean negar egitea, inork entzungo ez duen negarretan bizitza galtzea baino. *Ihes be-
tea zilegi balitz, urra al baledi katea...* poetak sentimenduen trafikantea izan nahiko luke, baina bere droga probatu gabe.

Izatearen mugek nekatu egiten zuten neurrigabe, kaiatik irten orduko hondoratu zen haren amets urrutia. Ezin nabiga zezakeen inongo inora itsasoaren ur antsiasuetan geratu zen bada, eta, Lisboako terrazaren batetik edo porturik gabeko ontzietan begira zegoela, norbaitek eskua sorbaldan jarri zion eta oporto bat hartzera gonbidatu zuen, ez izatera agian, edo akaso bera ez zen besteren bat eta gehiago izatera. Eta han geratu zen poeta bentako gelaren batean edo taberna zahar-
reko txoko ilunean ardo botila lagun... nork daki! Adiorik gabe joan zen poeta.

Egin ezazu negar. Gogorkeriak ez darama inora. Nega-
rrak ere ez, baina helbururik ezaren malkoak dira minenak eta sentituenak, nor izanean errotuenak. Eta itxoin ezaiozu poetaren dosiari, pixka batek ez dizu kalterik egingo. Itxaron ezazu, aurki itzuliko da etxera giltzarik ez badu ere, eta des-
tinora berandu ailegatu denak bezala atea kolpatu eta biho-
tzaren urratua ahoan duela (eta ardo botila eskuan) esango du, emeki: ni naiz. Artean, ez balizko malkorik isuri, eta itxi atea, poeta lanean ari da eta.

Igor Aristegi



Zer iruditzen zaizu alkoholaren tasa jaistera?



Mikel Irastorza

21 urte, ikaslea
beasaindarra

0,4 edo 0,25 izan berdintsu izango da, jendeak berdintsu edango du. Beste garraio batzuk jartzea ez li-
tzateke gaizki egongo.

Kike Biguri

34 urte, aktorea-tabernaria
beasaindarra

Ondo dago alkoholemia egitea, bai-
na tasa hainbeste jaistera ez. 2 zurito
edanda positibo ematen da orain. Tabernari naizenez gero, ez dut on-
do ikusten tasa hain behera jaistera.



Asier Lezeta

26urte, langilea
beasaindarra

Gehiegitxo da. Alde batetik ondo da-
go, baina galtzaileak gu gazteok ga-
ra.

GOIERRITARRA



943 88 96 12

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

XABIER SALINAS ELEKTROMEKANIKA

Erraminta elektrikoaren konponketa
Elektrikoa, pneumatikoa eta frekuentzi altukoa

☎ 943 88 21 49

Katea, 5

BEASAIN

URANGA

AUTOELEKTRIZITATEA

Automobilaren konponketa
elektriko orokorra

Katea z/g ☎ 943 88 03 39

BEASAIN

Unanue

Ume Santziak
Puerikultura

☎ 943 88 71 94

Nafarroa Etorbidea, 4 BEASAIN

ZINEA

LEGORRETA:

Maiatzak 20, 'Los Simpson, muy fuerte para TV', 20:30ean, Herri Zineman.

Maiatzak 24, 'Pactar con el diablo', 20:30ean, Herri Zineman.

Maiatzak 31, 'Toro salvaje', 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'La vida es bella'. Ostirala 21: 22:15; larunbata 22: 19:30 - 22:15; igandea 23: 19:30 - 22:15; astelehena 24: 19:30.

'Mi gran amigo Joe'. Igandea 23: 16:45.

DANTZA

BEASAIN:

Maiatzak 23, IV. Dantza libreko lehiaketa Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

MUSIKA

BEASAIN:

Maiatzak 21, Easo abesbatzaren Kaperia Gregorianozearen kontzertua, Andra Mari Zeruratuaren parrokian, 19:30ean.

Maiatzak 21, 'Los charros' taldearen mariatxi-emanaldia, Loinazko San Martin plazan, 23:00etan.

Maiatzak 22, rock kontzertua, txoznetan, 22:30ean.

Maiatzak 23, Debako musika-bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

Maiatzak 23, Mikel Telleriaren kantaldia, Zaldizurretako zubian, 18:30ean.

Maiatzak 28, Rock & roll gaua, 23:30ean, Zinema tabernan: Juke Box, Txus Abeciarekin.

ORDIZIA:

Maiatzak 28, Mikel Markez eta Pako Aristiren 'Tri-buaren hitz galduak' emanaldia, 22:30ean, Barrenan. Poltsikoko ikuskizunen barruan.

Ekainak 4, Josetxo Goia-Arriben eta Pello Ramirezen 'Eunate' kontzertua, saxo eta txelo doinuak, Barrenan, 22:30ean. Poltsikoko ikuskizunen barruan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Maiatzak 30, Behi Bi's antzerki taldea, Sasieta-rensentsibilizazioaren barruan, 18:00etan.

OLABERRIA:

Maiatzak 29, Behi Bi's antzerki taldea, Sasieta-rensentsibilizazioaren barruan, 10:00etatik 14:00etara, Prycan.

ORDIZIA:

Maiatzak 22, Behi Bi's antzerki taldea, Sasieta-rensentsibilizazioaren barruan, 10:00etatik 14:00etara, Ma-xi Eroskin.

ERAKUSKETAK

EZKIO-ITSAO:

Ekainaren 13ra arte, Zaharkinak erakusketa, Santa Lutziko Kultur Etxean.

ORDIZIA:

Maiatzaren 28ra arte, Eugenio Ortizen pintura erakusketa Barrenan.

Ekainaren 4tik 30era, Jean Pierre Auberten pintura erakusketa, Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 23, Federakuntzaren 75. urteurrena: Eibar-Elgeta.

Maiatzak 30, Larrun.



Zine festak

ZINEMA
taberna

BEASAIN



GESTORIA Biok

Errenta

aitorpenak

egiten dira

Goierri, 12 behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00

88 12 58

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: **943 88 90 17**

ATEAK

LEIHOAK

ESKAILERAK

ARMAIRU ENPOTRATUAK

OBRAK

ERREFORMAK

INIAUSTI

KARROZERIA



N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ **943 88 43 01** **OLABERRIA**

Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa

Argi-Berri elkarteak VIII. Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa antolatu du. Hiru mailatan banatzen da lehiaketa. **Gaztetxoan maila:** 13 urte artekoentzat. 'Mendiak' gaiari buruz gutxienez 6 eta gehienez 8 bertso idatzi beharko dituzte. **Gazteen maila:** 14-18 urte bitartekoentzat. Gaia librea izango dute gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira. **Helduen maila:** 1980an edo aurretik jaiotakoentzat. Gazteen mailan bezala, gaia librea izango da eta gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira.

Sariak: gaztetxoek, 20.000, 10.000 eta 5.000 pezeta; gazteek, 30.000, 20.000 eta 10.000 pezeta; eta helduek, 50.000, 40.000 eta 30.000 pezeta.

Uztailaren 1aren aurretik bidali beharko dira lanak Argi-Berrira (Gipuzkoa kalea, 15 - Ordizia). Saribanaketa irailaren 12an egingo da Ordizian.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Pertsona helduak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko 28 urteko neska eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuak dei 943 160126 telefonora.

☐ Eskusoinuak konponitzen ditugu. Marka eta modelo guztiak. 943 4700001. 17:00etatik 19:00etar deitu, ostegunetan izan ezik.

☐ Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Euskalduna. 29 urtekoa. Esperientziaduna. 943 889521. Elena.

Salerosketak:

☐ Txakurrak oparitzen dira. 943 16 0402.

☐ Txakurkumeak oparitzen dira, boxer eta pastor belga arteko kruzekoak. Julien. 943 672909.

☐ Akordeoia salgai. Pigni-Convertor 42 B. Erdi prezioan. 943 465724.

☐ Cocker Spaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko. Pedigree onekoa. 943 886164.

☐ Bi kanpin-karro salgai. Egoera onean. Oso erraz montatzen dira. 943 883724. 19:00etatik aurrera deitu.

☐ Compaq ordenagailua salgai. Prozesadorea eta pantaila, biak bat. Oso leku gutxi behar du. Prezio onean. 14:00etatik aurrera deitu. 943 187364.

☐ Estetikako aparagailuak salgai. 943-885513. Arratsalde edo gauz deitu.

Bestelakoak:

☐ Düsseldorf aupair bezala lan egiteko norbait behar da, hilabete batzuetarako. Beharrezkoa da oinarrizko alemaniera jakitea. 670 737402 (Stefan).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Maiatzak 22-23: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain) 943880152.

Maiatzak 29-30: Arriola (Enparantza Nagusia - Ordizia) 943882628.



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



Alpe

MASTER

**Elektragaiak
Sukaldeko altzariak**

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak
goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5
BEASAIN

Unibertsitate maila:

- ✓ Ingeniaritza Teknikoa
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Kimika

Langileentzat:

- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak
- ✓ Fakturazioa...

Oposaketen prestaketa:

- ✓ Nola landu
- ✓ Test-ak
- ✓ Psikoteknikoa

Hautoprobetako azterketak:

- ✓ Eskola graduatua
- ✓ lanbide heziketa
- ✓ Selektibitatea
- ✓ 25 urtetik gorakoentzat

Denok ezagutzen ditugu futbol profesionalaren nondik norakoa, goi-mailakoarenak batez ere, aurrekontuak, fitxaketak, jokalarien nazionalizazioak bezalako arazoak sortzen dituen eta beraz, Real eta Athletic mailako elkar-teetarako zer adierazi nahi duen horrek guztiak euren harrobi-politika arloan.

Gaurko antolaketa ikusirik, hainbat jende saiatu da eta neurri batean lortu du egoera hori futbol amateurren eramatea. Eta, askoz ere larriagoa! gazte, kadete eta haur-kategorietara, hain zuzen.

Nola onar daiteke, talde batek, Tolosakoak kasu honetan, Ordizia Elkarteko haur edo kadete-kategorietako jokalaria eramateko ahaleginak egitea, neska-mutilak zalantzan eta zer erabaki ez dakitela jarri arte eta, hau bai ezustekoa! euren gurasoak?

Baina, zertan ari gara? Tolosak ez al du agian, biztanle gehiago izan arren, bere herriko taldean jokatu-ko duen neska-mutikorik? Eta Tolosakoaz hori dioenak, gainerako beste guztiez gauza bera dio. Gipuzkoan, Reala alde batera utziz eta une honetan Eibarkoa, gainerako taldeetako maila eta kategoria oso antzekoak dira, eta euren lehiak onuragarria baino ez luke izan behar.

Garai batean, haur eta kadeteen arteko lehiaketarik ez zegoenean, gazte eta senior-kategorietako neska-mutilak Ordizia KEko elastikoa janzteko eta herriko taldea osatzeko irrikan zeuden. Giro hobea zen futbollean eta honen inguruko parafernalia eta izugarri go-

Zer egin nahi dute futbol amateurrekin, kadete eta haur-kategoriekin bereziki?

zatzen zuten jarraitzaileek, beren taldeekin eta jokalariekin batera finalerara eta txapelketetara joanez eta lortutako arrakastak herrikoarenak izan bailiran ospatuz.

Jokalaria "ospetsuren" bat ateratzen bazen eta herriko alde egiten bazuen, Realean, Alavesean, Osasuna, Athleticen jokatzeko izaten zen, edo lehenengo edo bigarren mailako beste talde batean; Tolosakoa, Elgoibarkoa, Euskalduna, Bidasoakoa, e.a., ordean, lehiakideak ziren, eta horietako talde batera zihoana "traidoretzat edo salduzetat" jotzen genuen, irudizko adiera eta kirol-giro adiskidetsuan, jakina.

Futbolarentzat eta futbolaren zaleentzat beharrezkoa da beraz, aurreko garaietako futbolak sentiarazten zigun girora itzultzea.

Gaur egun sortu da dudarik gabe, eta batzuek sinetsi dute, hainbat teknikarik, beraien burua nabarmentzearen, bultzatu nahi izan duten jokalaria ospetsuen merkatua zenbait elkarterekin batera (kasu honetan, Tolosakoarekin batera).

Futbol amateurrean, era batean edo bestean, sarturik gauden guztioi hausnarketa sakona egiteko eskatzen digu egoera honek.

Hasteko galdera batzuk bururatu zaizkigu:

✓ Hori al da benetan gure neska-mutilentzat/semelarentzat nahi duguna?

✓ Neska-mutilez duten informazioa, egokia edo desagokoa, nondik lortzen dute?

✓ Ez litzateke hobe izango lortzea eta askoz gehiago saiatzea elkartetako taldeetara bideratzen, federazioak/diputazioak eman ditzaketen baliabide gehigarriak, hala giza baliabideak nola baliabide teknikoak eta materialak? (Horrela emaitza hobeak jasotzeko aukerak zabalagoak lirateke, jokalaria guztiei zuzenduak eta ez bakar batzuei bakarrik).

✓ Ez al dute agian behar adina denborarik ematen taldearekin, asteko entrenamenduetan?

✓ Lortu behar al dute, gazte horietako batzuei (eta, kasu askotan, beren gurasoei ere) sinestaraztea merkatu horretatik atarmentu onik aterako duten gezur galant hori? Beste ideia batzuk planteatzea du helburu hemen azaldu-tako hausnarketak, helburu argi eta desiragarriak bideratuko dituzten ideiak, alegia.

✓ Sortuko diren galdera askoren artean beste galdera bat ere egin diezaiokegu gure buruari: Nora eramango gaitu gaur sortutako egoerak? Erraz atera daitezke ondorioak:

1. Neska-mutilen artean kezka bat sortzeraz, beraien artean sortu dituen desberdintasunak irrealak, hutsalak eta kaltegarriak baitira.

2. Haur, kadete eta gazte-taldeen iraupena arriskuan jartzera eta bai herrietan dauden futbol elkarteen iraupena ere, eta

3. Eskualde eta probintziako elkarteen arteko harreman eutsiezinak indartzera.

Lerro hauetatik beraz, elkartetako zuzendariak, taldeetako teknikariak, neska-mutilen gurasoak, eta jokalariei eskatzen diegu, guztion ardura delako, ez uzteko gertatzen ari den honetaz guztiak aurrera egin dezan.

Azkenik, azaldu dugunaren arabera eta sortu diren arazoak kontuan harturik, herrietan daudean futbol-elkartek hartu beharreko erantzukizunak finkatzen saiatzeko eta futbola eta talde amateurren bide zuzenean jarriko dituzten beharrezko baliabideak proposatzen hasteko une egokia dela uste dugu.

Vicente Trujillo
Jon Urdangarin
Miguel Jauregi
Jose Antonio Usabiaga
Jose Ignacio Zudaire
Julian Juarez
Agustin Aierbe
Emilio Luis Reno
Miguel Mate
Pruden Sarasola
Felix Cortes
Mario Crespo
Juan Ignacio Mendizabal
Cesar Garcia Martinez
Gervasio Clemente
Iñaki Saldias.

AHOLKUA



Amaia Meoki Plaza
dietista
Gorait gimnasioa

Lurralde industrializatueta ematen den heriotza tasarik handiena bihotzeko gaixotasunen ondorioz da: gaixotasun hauetan zera gertatzen da; zainen paretetan gantz gehiegi pilatzen dela. Gantz honek kolesterola dauka, horregatik oso garrantzitsua da kolesterol maila normalak mantentzea odolean. Hipertsentsioa eta loditasuna ere erlazionatuta daude gaixotasun honekin.

Kolesterol mailan zerikusia duten faktoreak asko dira: ingurunea, genetika, elikadura... Nik elikadurari buruz hitz egingo dut:

Gure eskualdean egin diren ikerketa askotan ikusi dena zera da: barazkiak, fruta, haragia, arraina, arrautzak, esnekiak (esnea ezezik), asko kontsumitzen direla; alkoho-

la, azukrea, animalia eta begetalen gantzak ere asko kontsumitzen dira. Zerealen, fruitu lehorren eta pataten kontsumoa berriz gutxitu egin da. Orokorrean: proteina eta gantz gehiegi jaten dira eta karbohidrato edo gluzido gutxiegi.

Gaur egungo gazteek "txutxeria" delakoak asko jaten dituzte baita opil industrialak ere. Arrazoi honengatik kolesterol maila altuak dituztela ikusi da, jaki hauek odoleko kolesterol maila igoarazten duten gantz mota bat baitute, zeren maiz eta koipe begetalarekin egiten dituzte, palma edo kokoaren koipea da eta hau gantz saturatua da, gantz hau da kolesterol maila igoarazten duena odolean, adibidez: produktu bat baino gehiagotan ikusi izanen duzue: "kolesterolik gabe" edo "koipe begetalarekin egina", hau egia da baina erabiltzen duten koipe mota, esan dudana bezala, koko edo palmarena da eta kontuan eduki behar da hau dela kolesterol maila igoarazten duena, gainera gazte askok ez dute behar adina gotsaltzen, honela goizerdian

edozein gauza jaten dute eta normalean txutxeri hauetako bat izan ohi da.

Fibra ere oso gutxi jaten dela ikusi da.

Bizimodu osasuntsu batek kolesterol maila egokiak edukitzen lagunduko digu, gainera beste edozein gaixotasunez babestuko gaitu. Orokorrean kolesterol maila altuak dituztenentzat zera aholkatzen da, nahiz eta kasu bakoitza indibidualki aztertu beharko zen pertsona bakoitzari tratamendu egokiena emateko:

- ✓ Esnea eta jogurt gaingabeak egunero, gazta noizbehinka jan beharko litzateke.
- ✓ Arraina egunero.
- ✓ Haragia: astean 4 aldiz.
- ✓ Arrautzak, gehienez 2 edo 3 astean.
- ✓ Barazkiak egunero behin gutxienez.
- ✓ Egunero entsalada berde bat (letxuga, endibiak...)
- ✓ Egunero 3 fruitu pieza, hauetariko batek zitrikoa izan beharko du (laranja, kiwia...).

- ✓ Patata egunero.
- ✓ Pasta eta arroza 3 aldiz astean, gehienez.
- ✓ Hobe zereal integralak kontsumitzea.
- ✓ Elikagaiak modu erraz batean prestatuko dira: egosita, plantxan, labean.
- ✓ Oliba koipearekin prestatu janaria eta entsaladak kontpontzeko arto koipea edo girasol koipea erabili.

Elikagai mota honekin, egunero behar dugun fibra kopurua hartzen dugu, honek kolesterol maila jaisten lagunduko digu. Soinketa egiteak ere lagunduko digu: gutxienez ordu bete egunero.

Elikagai debekatuak

Gurina edo mantekila, gainak, esne krema, gazta koipetsuak, urdaia, beikona, saltxitxak, foie-grasa, pateak, haragiaren grasa, muinak, erraiak, heste-beteak, opil industrialak, txutxeriak, izozkiak, txokolateak, bonboiak, kokoa, gaina duten jogurtak, petit-suisseak, zopa komertzialak, gozokiak eta golosinak.

Etxe



Banatzailea

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

San Inazio, 15



943 88 12 82

BEASAIN

**URBIETA
TABERNA**

**Kaxuela, pintxo eta
errazioetan berezitasuna
Plater konbinatuak**

Jose Migel Iturrioz, z/g
(Urbieta zentruaren parean)

BEASAIN

943 88 33 01

Ekainaren 13ko hauteskundeak

Ekainaren 13ko hauteskundeetan Goierriko herrietan aukerkeztuko diren kandidatek hauek dira:

Altzaga: AAT (Independenteak).

Arama: AHB (Independenteak).

Ataun: EH eta Herrigintza (Independenteak).

Beasain: EAJ-EA, EH, PP, PSE eta IU-EB.

Ezkio-Itsaso: EH eta Ezkio-Itsasoko Herrikideak (Independenteak).

Gabiria: GHE (Independenteak).

Gaintza: Momentuz ez da kandidatearirik aurkeztu.

Idiazabal: EAJ, EA, EH eta PP.

Itsasondo: EH eta PP.

Lazkao: EAJ-EA, EH, PP, PSE eta IU-EB.

Legorreta: EAJ-EA, EH, PP eta PSE.

Mutiloa: M. H. Kandidatea (Independenteak).

Olaberria: EH, PP, PSE eta O. Herri Elkarte (Independenteak).

Ordizia: EAJ-EA, EH, PP, PSE eta IU-EB.

Ormaiztegi: EAJ-EA, EH eta PP.

Segura: EAJ, EA, EH eta PP.

Zaldibia: EH, PP eta PSE.

Zegama: EAJ-EA, EH eta PP.

Zerain: Z.H. Kandidatea (Independenteak).

Euskal Selektzioaren eguna

Euskal Selektzioaren eguna ospatuko da maiatzaren 30ean, Oiartzunen, Esaitek (Euskal Selektzioaren aldeko iritzi taldea) antolatuta. Euskal Selektzio ofizialak lortzeko bultzada eman nahi dio egun honek, Euskal Parlamentuak Euskal Kirol Legea onartu zuenetik urtebetera. Egitarau zabala prestatu dute eta lau gunetan banatuko da zirkuitua. Lehenengo arean kirol ekitaldiak izango dira, bigarren goan kirola guztiontzat, hirugarren goan peña eta zaletuen bilkura nazionala eta laugarren goan jaia eta festa.

Goitur

Goierriko turismo eskaintza, Bilboko Expovacaciones erakusketan izan zen maiatzaren 13tik 16ra, Goiturren eskutik.

Interes kulturalerako zubiak

Eusko Jaurlaritzak Goierriko hainbat zubi interes kulturalerakoak izendatu ditu: Beasaingo Igartzako zubia; Legorretako Zubizaharra; Arama-Ordiziako Ibares eta Segurako Zubiandi.

Gaztetxearen alde

Beasaingo Gazte Asanblada, 'Denok batera, Gaztetxea helburu' lelopean hainbat mobilizazio egiten ari da. Gazteentzat lokalak eskatzen dituzte.

Ekaitz-Irati Goikoetxea

Ereñozuko Joxe Legarreta bertso-paper sarian irabalze izan dira beasaindarrak. 14 urte bitartekoan mailan Irati izan da irabazle, 'Maiz gogoratzen naiz egun hartaz' bertso sortarekin. 15-18 urtekoetan, Ekaitzek irabazi zuen, 'Irakeko leiho ertetik' lanarekin.

Abenturako ekintzak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 14-17 urte bitartekoentzat abenturako ekintzak antolatu ditu udarako. Izen ematea gaur bertan egin behar da Ordiziako Gazte bulegoan. Informazio gehiago bertan daukazu. Nortasun agiriaren kopia eraman behar da izena emateko ordua. Zozketa maiatzaren 25ean egingo da.

Josune Bereziartu

8c mailako beste bide bat igo du Josu Bereziartu eskalataileak.

CAF

Beasaingo CAF enpresak Bilboko Metroarentzako 10 bagoi egiteko akordioa sinatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin, maiatzaren 11n. Kontratua 10.000 milioi pezetakoa da. Lehenengo bagoia 18 barru eginda eduki behar du CAFek eta gainerako 24 hilabeteko epean.

Etxegarate

Ezeren okerrik ez dela, maiatzaren 25ean inauguratuko da Etxegarateko bikoizketaren bigarren fasea. Mendatearen bikoizketa lanen lehenengo harria ere egun horretan jarriko da. Idiazabalgo kronikan daukazu informazio gehiago.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57




- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz besta

MANDUBIKO BENTA jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

Euskaldunontzat ez dago justiziarik



Euskal Herrian Euskaraz taldeak beste hiru elkarterekin batera Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskararen normalkuntza lortzeko oinarriak aurkeztu zituen duela aste batzuk. Proposamenak euskararen ofizialtasun erreala bermatu nahi du, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen.

Lau elkarte hauen esanetan tamalgarria da justizia arloan euskarak bizi duen egoera. Funtzionamendua erdaraz burutzen da eta euskaldunek beraien hizkuntzaz egin nahi dutenean atzerapenak, okerak eta zigorrak baino ez dituzte topatzen. Aurrera begira hainbat pauso emateko garaia dela diote eta ezinbestekotzat jotzen dute hizkuntza normalizazio plan bat diseinatzea.

Aipatu elkarteek justizia administrazioan euskararen normalkuntza bilatzen duen lau puntuko proposamena egin dute.

- ✓ Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osora zabaldu behar da.
- ✓ Justizia Administrazioak, beste edozein administrazio bezala herritarren zerbitzura dagoenez, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu, eta harremanak herritarrek aukeratu-tako edozein hizkuntza ofizialean burutzeko gai izan beharko dute.
- ✓ Itzulpena ezin da izan hizkuntza koofizial bi dauden kasuan horietako batentzat sistematikoki ezartzen den jardun sistema. Itzulpenak herritarren eskubideak urratzen ditu, defentsa eta babes judizialerako aukerak murriztuz.
- ✓ Funtzio publikoa duten lanpostu guztiei euskararen ezagutza derrigorrezkoa ezarri behar zaie, era mailakatu eta planifikatuan bada ere.

Bide beretik, azkenaldian zigortuak izaten ari diren abokatu euskaldunei elkartasun ekonomikoa eskaintzera deitzen ditu EHEk herritarrak. Horretarako Euskadiko Kutxan zenbaki hau ireki da: 3035 0060 47 060.0.09484.3.

Txalo

Txalo *Ordizian Merkataritza Elkarte*ari, Udalaren eskaerari erantzunez Ordiziako komertzioetan euskararen presentzia areagotzea helburu duen kanpainari baiezkua eman diolako.



Topagunea

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak batzarra egin du berriki. Batzarrak iazko urtearen

balantze baikorra egin zuen eta urte berrirako dituen asmoak zehaztu. *Topaguneak* 36 Euskara elkarte eta herri aldizkari biltzen ditu bere baitan, guzti hauen koordinazioa eta elkarlan bideak sendotzea duelarik helburu.

Euskara merkataritzara

Ordiziako Udalak herriko denda eta komertzioetan euskararen presentzia eta erabilera ugaltzea helburu duen kanpaina jarri du martxan. Kanpainak hiru hilabeteko iraupena eta milioia pasatxoko aurrekontua izango du eta Siadeco soziologi enpresak eramango du aurrera.



Kantu afaria

Ikasi-Makusi egitasmoaren baitan II KANTU AFARIA egingo da maiatzaren 28an, ostirala, Ordiziako Tximista sagardotegian. Afarirako txartelak Olano, Koiote eta Arantxa tabernetan eskura daitezke.



Lanordu bat

Ikaragarri arrakastatsua gertatu da *Lanordu bat euskararen alde* lelopean Kontseiluak burutu duen kanpaina. Guztira 100 milioitik gora jaso dira, antolatzaileen aurreikuspenak erabat gaindituz. Bildutako dirua aipatu erakundeak diseinatutako plan estrategikoa garatzeko erabiliko da. Goierriko langile eta enpresek ere bikain erantzun diote erronkari.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



ELA-LAB: "Patronala ez dago prest lanaldiaren murrizketa negoziatzeko"

Maiatzaren 21erako sindikatuak, 35 orduko lan astea eskatuz deitutako greba orokorra dela eta, Goierriko LAB eta ELAko arduradunekin izan gara. Greba orokorraren zergatiak azaldu dizkigute.

- Apirilaren 13an izan zenuten azkeneko bilera Lan Harreman Kontseiluan, eta une honetan, Confebasketik lanaldiaren murrizketaren eztabaidan sartu nahi ez duenez, mahaia etenda dago. Oro har, zer jarrera mantendu du patronalak hemezortzi hilabetea zehar?

- Mahai negoziatzailea eratzeke patronalak eragozpen ugari jarri zituen, ez baizuen asmorik sindikatu abertzaleok aurkeztutako planteamenduei benetan eusteko. Azkenean, ez gutxi kostata, Enpleguaren aldeko Batzordea eratzea lortu genuen.

Gero, eduki ditugun bile-



Mikel Garmendia eta Bixente Zimarraga, LAB eta ELAeko ordezkariak.

retan, bere helburu nagusia, ia bakarra, ordezkapen kontratua adostea zen, ahalegin guztiak horretara bideratuz. LABek eta ELAk garbi azaldu genuen gure desadostasuna eskema horrekin eta, ondorioz, negoziatu ahal izan dugu urtarrilaren 15ean sinaturiko Akordioa.

- Urtarrilaren 15ean enplegua bultzatzeko "ordezkapen kontratua" deritzaion akordioa sinatu zenuten. Nola ulertzen duzu akordioa sindikalismo abertzalearen estrategian?

- Jakina da Akordioaren edukiak ez dituela asetzen gure eskakizunak enplegua-

ren alorrean. Nahiz eta urrats positiboa izan, Akordioa partziala da. Horrexagatik ekin genion, sinatu eta berehala, lanorduen murrizketaren aldarrikapena mahaigaineratzera eta beharrezko ekimen mobilizatzaileak prestatzera.

- Akordioaren ondoren, otsailaren 3tik aurrera sindikatuak saiatu zarete lanaldiaren murrizketa negoziatzen. Lan Harreman Kontseiluaren baitan irekitako prozesu berria nolakoa izan da?

- Patronala, orain dela 15 hilabete azaldutako jarrera berean mantentzen da. Prozesu luze honetan idea bakarra azpimarratu du: ez dagoela prest, inondik inora, lanaldiaren murrizketa negoziatzeko, ezta balizko negoziatzioaren oinarriak jartzeko ere. Azken fasearen lehenbiziko bileretan eztabaida nahasteko zenbait saio egin ditu: eremu desberdinetan emandako esperientzien bilduma, Europako txostenak, hitzarmen kolektiboen informazioa, eta abar.

Greba orokorrerako ekintzak Goierri

Goizeko 5,30etan INEMen elkartuko dira. Goizeko 9,30etan tren geltokian bilduko dira ikasle, langile..., egoeraren berri eman eta autobusak bertan izango dira Donostian, 11,30etan izango den manifestaldira joateko. Arratsaldeko 6,30ean, manifestazioa izango da LABek antolatuta, Ordiziatik Beasaina.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Confebasken asmoa garbi geratzen doa: sasi prozesu negoziatzaile baten itxurak egin luzamendu artifizial baten barruan, azterketa "tek-niko" ugariz denbora galtzeko. Gure aldetik, noski, estrategia hori errotik aldatzeko exijitzen dugu. Zentzu honetan, patronalari lehenbailehen proposamen zehatz bat aurkeztu zezan dei egiten diogu. Espero genuen bezala, proposamena ez da inoiz formalki gauzatzen. Beraz, temati eta setatsu jarraitzen dute bere jarrera mugigaitzean. Sindikatuok bi bide besterik ez ditugu: etsipenaren poderioz gauzak bere horretan uztea edo ahalik eta erantzun irmo eta zabalaren antolatzea. Bigarrena aukeraturik, greba orokorraren deialdia zabaltzen dugu.

- Patronalak ez du azaldu borondaterik lanaldiaren murrizketaren inguruan negoziatzeko. Greba orokorra behar-beharrezkoa egiten al da?

- Historikoki, lan murrizketa izan da langile mugimenduaren aldarrikapen garrantzitsuenetarikoa. Maiatzaren Lehenaren sorrera bera, 8 orduko lanaldia defendatzeko borroka latzaren ondo-

Aurreko urteetako krisi ekonomikoak eta birmoldaketa bortitzak, euskal langile klaseko multzo garrantzitsuak desartikuluatu egin zituen, langabezian murgilduz, askorentzat berriro lanean hasteko esperantzarik gabe. Euskal Herrian 180.000 lagun dira une honetan lanik ez dutenak eta hauetatik gazteak eta emakumeak dira gehien jasaten dutenak egoera lazarri honen eragina. 25 urte azpikoen artean langabezi maila % 33,7an kokatzen da EAEn (%42,3koa emakumeen artean) eta Nafarroan %25,9an (%39,8koa emakumeen artean), hain zuzen ere.

Egoera gogor honen aurrean, sindikatuek iaz 35 orduko lanaldia eta soldata sozialaren alde hasitako kanpainak nahiz eta onarpen sozial handia lortu duen Euskal Herria osoan, enpresariak Confebasken eskutik ez dauke prest sindikalismo aberzalearen eskariak onartzeko. Patronalak orain dela 15 hilabete Lan Harreman Kon-

torioa da. Beraz, patronalarekin klase konfrontazioarako eremu erreibindikatio naturala.

Gaur egun, eskakizun-egitate horrek badu beste helburu bat, alegia, enplegua sortzeko ezinbesteko neurria bihurtzen dela, kontutan iza-

Grebara!

tseiluan (LHK) azaldutako jarrera itxian mantendu da, lanaldiaren murrizketaren inguruan negoziatzeko borondaterik gabe. Horregatik, maiatzaren 21erako Greba Orokorreko egindako deialdia ezinbestekoa da lanaldia murrizteko, enplegu berriak sortzeko eta lanik ez dutenentzako soldata duina lortu ahal izateko.

Historikoki, lan murrizketa izan da langile mugimenduaren aldarrikapen garrantzitsuenetarikoa. Maiatzaren Lehenaren sorrera bera, 8 orduko lanaldia defendatzeko borroka latzaren ondorio da. Ildo honetatik, Iruñean buruturiko Maiatzaren Lehenengo aldarrikapen nagusia 35 orduko lan astea eta soldata soziala izan ziren. ELA, LAB, ESK, EILAS eta HIRU sindikatuek deituta elkartu eta mobilizatu ziren 25.000 lagunek Greba Orokorrearen oihua Euskal Herria osoa hedatu zuten.

Bizi dugun testuinguru politiko eta sozio-ekonomiko honetan, Lizarra-Garaziko akordioak betetzeko orduan jarri behar den irmotasun politikoak justizia sozialarekin zeharo uztarturik egon behar du. Euskal gizartearen sektorerik zigortuena eta langileria asebeteko duen erreibindikazio sozio-laboralak baztertuta ezin ulertu daiteke nazio eraikuntzako prozesua.

ELA-LAB

nik Euskal Herriak nozitzen duen langabezi tasa itxuragabea. Aipagarria euskal sindikalgintzatik eta autonomia osoz azken 50 urteetan deitzen dugun lehen greba sozio-laborala dela.

- ELA eta LABen ekintza bateratua, zein egoeratan aur-

kitzen da Goierrri eskualde "berezi" honetan?

- Jakina da historikoki nahiko enfrontatuak izan garela bi sindikatuok, baina azken bi urte hauetan eta eskualdeari dagokionean, pauso garrantzitsuak ematen ari garela esan dezakegu.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



**GOKINDETA
GARBINA**

K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Olagi
Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15

Nekane Company: "Mirariak egin daitezke makilajearekin"

Makilatzailea da Nekane Company beasaindarra. Telebistan, zinean, antzerkian, argazkigintza, modan eta emaztegaiak makilatzen lan egiten du. 26 urte ditu eta 4 urte dira makilajearen mundu honetan sartu zela.

Makilajeak estetikarekin zerikusirik ez duela zehaztu nahi izan digu Nekane Company lehenik eta behin. "Jendeak nahastu egiten ditu makilajea eta estetika. Makilatzailea izateko ez dago estetizienea izan beharrik. Makilajea arlo zabalagoa da eta arlo asko ikutzen dira; estetikak edertasunaren oinarria lantzen du".

Lan ezberdinak egiten ditu beasaindarrak: telebistan, zinean, antzerkian, publizitatean, argazkigintzan; emaztegaiak eta modeloak makilatzen; gorputz osoak ere makilatzen ditu; efektu bereziak; pelukak egiten ditu... Momentuan, Donostia-ko makilaje-ko akademia batean klaseak ematen ditu.

Arlo bakoitzeko makilaje batetik bestera alde omen handia dago. "Antzerkian, azkar makilatu behar da, espresioaren aurpegierak



Beasaingo jaietan moztorra gauerako lana izaten du Nekane. Ezlerrelp argazkian, hiru beasaindar mutil, Nekane Company makilatuta.

markatuz. Zinean, naturala izan behar da, makilajea ez da nabarmendu behar. Zinean konplikatuagoa da, bi egunetan grabatu behar den eszenarako, makilajea berdina egin behar baita. Beltzune bat egin behar baldin bada, intentsitate eta neurri berekoa egin behar da behar den adina egunetan. Argazkigintzako makilajea da nire ustez zailena. Argazki batean dena ikusten da. Perfektua egin behar duzu. Publizitateko argazkietan, bainujantzian ateratzen diren argazki batean esaterako, gorputz osoa makilatzen da".

Urnieta-ko Bideo Eskola-ko laburmetraietan, Itziar operan, Euskal Telebistan Jose Luis Morenoren saioan... lan egindakoa da. ETBen jende ezagun asko

ezagutzeko aukera izan zuen. Ordizia eta Beasaingo antzerki taldeekin lan egiten du Nekane. Ekainaren 13ko hauteskundeak begira, Gipuzkoako PSEko hautagaiak makilatu ditu, karteletako argazkietarako.

Efektu bereziak

Makilajearekin pertsona bat guztiz alda daiteke, "itsusitzaiko edo politago egiteko. Mirariak egin daitezke". Efektu bereziekin benetako artelanak egiten dituzte makilatzaileak. Nekane bere lanekin egindako argazki albumean adibide ugari erakutsi dizkigu: erredurak, golpeak, zauriak, belarri berde handia... Benetakoak ziruditen. "Latexa erabiltzen dut asko, etxean ditugun gai asko ere bai. Paperezko mukizapiak, algodoia, fideoak,

tostadak, pureak... Edozer egin daiteke, makilatzen ondo jakinez gero. Zikatrizek askotan nazka handia ematen dute, baina paperezko mukizapien egindakoa izaten dira. Tostadekin erredura oso politak egin daitezke".

Nekane-entzat makilajea artea da. "Pintoreek lienzoetan margotzen duten bezala, makilatzaileak gorputzak margotzen ditugu". Gorputz osoak ere margotzen ditu, egun osoa pasatzen du horretan.

Gogoratzen azkenak

Makilatzaileentzat lan munda ez omen dago batere erraza, "Goierri-ko okerrago, publizitate agentziarik ez baitago hemen. Donostia aldean lan gehiago dago. Madril eta Bartzelonan lan gehiago dagoela esaten da baina ez da hainbesterako", dio Nekane.

Makilatzailearen lana ondo baloratua dago beasaindarraren esanetan, "egin ondoren baloratzen da, baina normalean, makilatzailearen beharraz azkenengo momentuan gogoratzen dira. Medio guztietan beharrezkoa da makilatzailea baina azkenengo momentuan gogoratzen dira. Hori bai, oso ondo tratatzen gaituzte eta lana baloratzen da".0



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZBK. KOLEGIATUA

Jai zoriontsuak!
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



Nagusia, 13
BEASAIN

Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikulua

Sta. Maria, 15
ORDIZIA

Loinatz jaien azken txanpa



Maiatzak 21, ostirala:

18:00etan: Dantzaoketa eta playbacka, Joan Iturralde plazan.

19:30ean: Easo abesbatza-
ren Kapera Gregorianoza-
learen kontzertua, Andra
Maria Zeruratuaren parro-
kian.

23:00etan: Los Charros tal-
dearen mariatxi-emanal-
dia, San Martin plazan.

Maiatzak 22, larunbata:

10:00etan: Txistularien
Udal-bandaren goizeresi
alaia.

10:00etan: Areto-futbola:
mutilen Gipuzkoako txa-

pelketako finalerdiak (ale-
binak), kiroldegian.

10:30ean eta 15:30ean:
Aitz-Zorrotz Elkartek an-
tolatutako plater-tiraketa.
Herri-mailakoan. 'Sumi-
nistros Loinaz'-en parean.

11:00etan: Erretiratuentza-
ko toka eta igel lehiaketak,
Zaldizurreta kaleko terra-
zan.

11:00etan: Elkarteen arteko
sukaldaritza-lehiaketa, San
Martin plazan.

15:30ean: Arku tiraketa:
XIV. Asturiasko Printze
Saria, kiroldegian.

16:00etan: Moto-kros
lehiaketa handia, Igartzako

jauregiaren atzeko zelaian.

16:00etan: XLIX. Loinatz
Txirrindulari-proba ama-
teurrentzat.

16:00etan: Gaztetxoentza-
ko xake-lehiaketa, Ezkiaga
Auzo Etxean.

17:30ean: Umeentzako Mo-
zorrotailerra, Loinazko
San Martin plazan.

18:45ean: Ume mozorro-
tuen bilkura, ibilaldia es-
kualdeko Erraldoiak. Irtee-
ra Loinazko San Martin
plazatik.

19:00etan: Gorait gimna-
sioko irakasle eta ikasleen
saloiko dantzen erakustal-
dia, San Martin plazan.

19:30ean: Umeentzako
dantzaldi suspertua Hortz-
muga taldearen 'Txango-
ren txaranga' ikuskizuna-
rekin, Joan Iturralde pla-
zan.

22:30ean: Rock kontzertua,
Gipuzkoa plazan.

23:00etan: Kale-animazioa:
Hortzmuga taldea.

23:30ean: Dantzaldia Topo-
lino Radio Orquesta talde-
arekin, San Martin plazan.

Maiatzak 23, igandea:

9:00etan: Iturengo zanpan-

tzarren esnadeia.

9:30ean: Arku-tiraketa:
XIV. Asturiasko Printze
Saria, kiroldegian.

10:00etan: Kutxako Gazte-
txoen Elkarteko Xake-txa-
pelketa, Ezkiaga Auzo
Etxean.

11:30ean: Gomazko pilotaz
jokatutako Pala-txapelke-
tako finala, Batzokian.

13:00etan: Debako musika-
bandaren kontzertua, Loi-
nazko San Martin plazan.

17:00etan: Umeentzako es-
kalada arrokadromoan, Jo-
an Iturralde plazan.

18:00etan: Kollins clown
taldeak 'Kiriko oilarra eta
hiru txerrikumeak' ipuin
antzeztuak eskainiko ditu,
Joan Iturralde plazan.

18:30ean: Mikel Telleriaren
kantaldia, Zaldizurretako
zubian (Senpere kalea).

19:00etan: Herri-kirolen
erakustaldia, Igartzako
parkean.

19:00etan: IV. Dantza Li-
breko lehiaketa, Loinazko
San Martin plazan.




BEREZIARTU TAPIZTEGIA

Kale Nagusia, 9

© 943 88 04 98

BEASAIN

Urlo



ZIKLO FORMATIBOAK

1 Erdi Mailako LABORATEGIA

Sarrerako Baldintza

- D.B.H. gainditua
- 18 urtetik aurrera, sarrera froga

Ikasgaiak

- Laborategiko Oinarrizko Iharduerak
- Entseiu Fisikoak eta Fisiko-Kimikoak
- Mikrobiologi Frogak
- Informazioa eta Segurtasuna Laborategian
- Formazio eta Orientazio Laborala
- Kalitatea eta Etengabeko Hobekuntza B. Enpresan
- Prestakuntza inguruko lantoki garrantzitsuenetan

Gerora

- Laborategi-laguntzailea

2 Goi Mailako INGURUGIRO KIMIKA

Sarrerako Baldintzak

- LOGSE Batxilergo-titulua
- 20 urtetik aurrera, sarrera froga

Ikasgaiak

- Ingurugiro-legedia. Informatika eta estatistika tresnak
- Eguratsera egindako igorpenen kontrola
- Hondakinen kontrola
- Uren arazketa
- Kimika segurtasuna eta industri higienea
- Lan orientazioa eta prestakuntza
- Etengabeko hobekuntza eta kalitatea
- PRAKTIKAK ENPRESETAN

Gerora

- Enpresa hondakinen gestionatzailea



BATXILERGOAK

1 NATUR eta OSASUN-ZIENTZIEN BATXILERGOA

- INGENERITZA, ARKITEKTURA karrerak eta gai hauekin lotuta dauden goi-mailako zikloetako GILTZA
- BATXILERGO TEKNOLOGIKORAKO ibilbideak
- OSASUN eta ZIENTZI arloko karrerak eta goi-mailako zikloetako GILTZA

GAURKO JARDUNA, BIHARKO ETORKIZUNA



2 HUMANITATEAK eta GIZA_ZIENTZIEN BATXILERGOA

- EKONOMIA eta ENPRESA munduarekin zer ikusia duten karrera eta goi mailako zikloetako GILTZA
- FILOSOFIA, HISTORIA, FILOLOGIA... karrera eta hauekin erlazionaturik dauden goi-mailako zikloetako GILTZA

TXINDOKI
ALKARTASUNA

Ugartemendi, 6 20200 Beasain Tel. 943 88 73 93 Fax 943 16 10 48 Email txindoki@jet.es

ZEGAMA

1999. urteko Udal liburutegiko kuota

Datorren maiatzaren 25etik ekainaren 4 bitartean Udal liburutegiko bazkide izan nahi dutenek beren kuota ordain dezakete Udal liburutegian bertan. Urteko kuota 1.000 pezeta da eta honekin, urte osoan, aldiko bi liburu etxera eramateko eskubidea du bazkide orok. Horrezaz gain, Udalak aurtan egin duen azken inbertsioa dela eta, bi ordenagailuren erabilpena zerbitzua dugu herritar guztiontzat, ordenagailu hauek CDz ere hornituak daude, eta bertan edozein lan egiteko aukera dugu zegamarrok.

Azkenaldian gero eta CD gehiago merkaturatzen ari direla eta, liburutegira ere gero eta material gehiago iristen da eusgarri horretan, ondorioz azpiegitura hori herritarren zerbitzura jartzea garrantzitsua dela ezin uka genezake. Ordenagailuz gain inpresora ere bertan dago.

Arantzazura peregrinazioa

Aste bukaera honetan izango dugu ospakizun hau. Tradiziozko ekitaldiez gain Kasinoko XI. Ipuin lehiaketa martxan dago eta maiatzaren 24an, ongi-etorriaren ondoren banatuko zaie haurrei dominak eta sariak. Txapelketa hau Kasino elkartearen dirulaguntzari esker gauzatzen da eta Kultur Etxeko batzordekideen artean irakurtzen dira ipuin orijinal hauek. Ea aurtengoan zeintzuk ditugun ipuin idazle trebeenak!

Tute txapelketa

Amezti elkarteak antolatutako datorren maiatzaren 22an lehen Tute txapelketa jokatu da Amezti elkartearen, 17:00etan. Sariak: 1goak, trofeoa eta txapela; 2.ak trofeoa; eta lehenengo lau bikoiteentzat, afaria.

Bestalde, Amezti elkarteak azken Zuzendaritza batzordea aldatu du: lehendakariarako Jon Ormazabal izan zen hautatua; diruzaina, Ainhoa Urbizu; idazkaria Joseba Izagirre eta bokalak Rafa Olaziregi eta Julian Iraola. Zuzendaritza batzordea berriaz, Emilio Txurruka, Jesus M. Larrea eta Luis Otaegik utzi dute.

Laburrean

● Azkenaldian zenbait pertsona hurbildu dira udaletxera etxebizitza alokatuko luketela eta informazio eske. Inork bere etxebizitza alokatzeko asmorik badu, udaletxean eman dezake izena.

● Maiatzaren 23an, **Aitzgorri F.T.** - Eibar S.D. partidua jokatu da Seguran.

● Kultur Etxeak antolatutako **lore gintza ikastaroa** ematen da larunbat goizetan, Kultur

Etxean bertan. Ikastaroa Arantxa Ariztimuñok ematen du eta 12 zegamar hasi dira ikastaroan, bertan irakasgai erabiltzen diren landareak Kultur Etxea apaintzeko bertan utziko dira.

● Kultur Etxeko batzordeak herritarrei **argazki zaharrak** ekar zitzaten eginiko eskaerak indarrean darrai, egun 1891ko Zegamako Bandaren argazki zahar bat iritsi da batzordearen eskuartera eta honi lagun egingo dioten argazkien zain gaude ondoren erakusketa bat egiteko asmoz. Argazkiak herria berarenak, herriko toki edo edozein motakoa izan daitezke. Argazkia, norberak kopia aterata ekar dezake edo bestela udaletxean utzi daiteke kultur teknikariak atera dezan kopia. Kultur Etxeak ordainduko du kostu osoa.

Edurne Albizu

etxean eskuratu!

Bideoa.
Iraupena: 80'
1.200pzta.



Kotxe pegatina.
200pzta.



Pin-a
100pzta.



Izen-abizenak _____
Helbidea _____
Posta Kodea _____
Herria _____
Herrialdea _____
Telefonia _____
Kontu Korrontea (20 zenbakiak) ____/____/____
edo taloi bat.

ESKAERA

MATERIALA	KOPURUA	ZENBATEKOA	OSOTARA
Bideoa		1.200	
Pin		100	
Kotxe pegatina		200	
Bidalketa gastuak			+300
			OSOTARA

Bidali lehenbailehen.

Korreoz: KONTSEILUA
Martín Ugalde Kultur Parkea
20.140 ANDOAIN

Faxeaz: 943.59.30.51



ZALDIBIA

Dantzari Txiki Eguna



Iztueta dantza taldekoak entseian.

Igande honetan, hilak 23, ospatuko da Zaldibiako IX. Dantzari Txiki eguna, Iztueta Dantza Taldeak eta Zaldibiako Udalak antolatuta. Goizeko 11etan emango

zaio egunari hasiera, herriko plazan, parte hartuko duten dantza taldeen bilkurarekin (Ordiziako Jakintza, Lazkao Oin-arin, Lasarteko Erketz, Hendaia Gurea, Itsa-

sondoko Dantza Taldea eta Zaldibiako Iztueta).

Hamaiketakoaren ondoren, eguerdiko 12etan, herrian zehar desfilea egingo dute dantzariak, eta jarraian talde bakoitzak bere ikuskizuna eskainiko du plazan. Dantzari guztiek elkarrekin bazkalduko dute herriko plazan, jaialdiaren ondoren.

Arratsaldeko 4,30etan emango zaio hasiera Hortz-muga taldearen "Sportzis" ikuskizunari. Eguna festa giroan amaitzeko erromeria izango dugu, haurrentzako ikuskizun honen ondoren.

Ipuin ordua

Ekainaren 4an, Arrate Leunda ipuin-kontalari ordiziarren saioa izango dugu,

arratsaldeko 6etan, Kultur Etxean. Emanaldi hau 4 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendurik dago.

Hitzaldia

Beti-Gazte Elkarteak antolatuta Arantzazun praile dagoen Martin Mendizabal zaldibitarak "Zaldibia sortu aurretiko mugak; Zaldibia sortu ondorengo mugak" hitzaldia emango du, Zaharren egoitzan, maiatzaren 27an, osteguna, arratsaldeko 6etan.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

LEGORRETA

Eliza zabalik da



4 urte itxita egon ondoren, maiatzaren 9an zabaldu zuten Salvatore Deunaren eli-

za. Inauguraketako meza nagusian Jose Maria Setien goztaina izan zen. Eraberritze

lanek luze jo badute ere, dotore asko utzi digute eliza.

Futbol txapelketa

Maiatzaren 2an jokatu zen koadrilen arteko futbol txapelketaren finala. Aurten gainera, finala koadrila berekoen artean jokatu da. Azkenik, Jan Da Lo Z 4-3ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Jan Da Lori. Finaleko jokalaria hoberenaren saria Jan Da Lo Zko Iker Lasari eman zioten. Txapelketan parte hartutako talde guztiek Bilkoin Elkartearen bazkaldu

zuten eta arratsalde partean giro ederra izan zen herrian.

Txirrindulari proba

Maiatzaren 8an bigarren urteko txirrindulari kadeteentzako taldekako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketa korritu zen gure herrian eta bertan, Andoaingo taldeak lortu zuen garaipena.

Josune Amondarain

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

Sagardotegia
aulia

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

SEGURA

Errejonaletik preferentera zuzenean



Goian: Pasa den zapatuan errejonaleko txapeldun geratu zen futbol taldea.



Ezkerrean: Jon Ander Hombre 30 golekin goleatzailerik nagusia izan da.

Azkeneko partiduan 5 sartu zituen.

Orain 3 urte 2. errejonaletik lgora igota, 98-99 denboral-diko txapeldun geratu ondoren, preferentean jokatu dute datorren denboraldian. Plantila beretsuarekin (gehienak herritarrak) kategoriako herririk txikienetakoa izango da Segura. Azkeneko partidua irabaziz nahikoa zuten Iñaki Albusuren mutilek eta maiatzaren 15ean, 6 eta 1 irabazi zioten Elgoibarri. Txapeldunek Zumaiako bigarrenari puntu bakarra atera diote.

Gainerako emaitzak. **Jubenilak:** Segura 4-3 Hererra. **Kadeteak:** Martutene 6-2 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1-0 Lagun onak.

Asteburuan etxean: Ka-

detek; Aizkorri-Eibar, zapatun 16:00etan.

Pelota

Herri artekoa: Bihar, maiatzak 21, gaueko 10etan zumarragarren kontra jokatu dute herritarrek Baratz Pelotalekuan. Datorren asteburuan Zumarragan jokatu beharko dute.

San Joanetarako prestaketak

Txistularien biribilketa eta kalejirarako entsaioak: herriar txistua ikasten edo jotzen ibilitako guztiak elkartzeko asmoa da aurten ere. Horretarako herriko 90-100 txistulariri pasa zaizkie partiturak eta entsaio egunak. Hauek, maiatzaren 22an eta

Udal hauteskundeetarako zerrendak

€A.: 1.Karmentxu Etxeberria, 2.Mikel Areizaga, 3.Jon Agirre, 4.Xabier Telleria, 5.Inmakulada Gabilondo, 6.Gurutz Goikoetxea, 7.Joxe Manuel Ormazabal, 8.Joxe Mari Auzmendi, 9.Blax Ariztimuño, ordezkioak: Felix Jauregi, Joxe Insausti eta Xabin Aldanondo.

€H.: 1.Luli Telleria, 2.Rafael Gerriko, 3.Aitzol Telleria, 4.Jaione Telleria, 5.Markel Telleria, 6.Iñaki Ormazabal, 7.Iñaki Intxausti, 8.Ana Zerberio, 9.Egoitz Apaolaza, ordezkioak: Martxeliño Elorza, Lierni Elorza eta Felix Larizabal.

€A.J.: 1.Pello Agirrezabal, 2.Manu Errezola, 3.Arantxa Etxeberria, 4.Marian Ariztimuño, 5.Krux Mari Intxausti, 6.Ixabel Uranga, 7.Jexux Mari Ormazabal, 8.Joxe



Ariztimuño, 9.Patxi Azurmendi, ordezkioak: Maritxu Urreta, Ramon Leturia eta Xalbador Olaziregi.

P.P. (Guztiak ezezagunak dira): 1.Jesús Malonda, 2.Rosario Barrios, 3.Rosario Regueira, 4.Eduardo Sandoval, 5.Roberto Pupo, 6.Amparo Gómez, 7.Carlos Ranz, 8.Patricia Sanguines, ordezkioak: Juan Molina, Oscar Pérez eta Juan Carlos Gómez.

ekainaren 12an izango dira arratsaldeko 7etan Baratz Pelotalekuan.

Umeen, tanborradarako entsaioak: maiatzaren 31n hasita, astelehen, asteazken eta ostiraleko izango dira arratsaldeko 5,30etan Baratz Pelotalekuan.

Mendi irteera

Kirol eskolarrekoak maiatzaren 23an goizeko 8,30etan plazatik irtenda, Aretxabale-tako Degurixa mendira joango dira. Antolatzaileek, eskolakoak ezezik, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte eta horretarako autobusa antolatu dute (ikasleek 500 pta eta gainerakoek 1000). Izenak maiatzaren 21erako eman behar zaizkie eskolako edo mendi elkartekoren bati. Degurixara heldu aurretik Andarto igoko dute eta ondoren Urkuluko urtegiaren inguruan bazkaldu.

Labur-labur

● **Bola.** Maiatzaren 16an Urnietan izan zen Gipuzkoako bakarkako finalean, Imanol Agirrek 3. egin zuen eta Jexux Mari Intxaustik 5.

● **Atletismoa.** Maiatzaren 29 eta 30ean, Txindoki A.T.an ari den Iker Agirrezabalek, pista irekiko Euskadiko txapelketan parte hartuko du Gasteizen. 29an 300 metrotan arituko da eta 30ean 100etan. Ekainaren 19tik 25era, berriz, Salamancan izango den Espainiako txapelketan parte hartuko du 300 metrotan.

● **Interes kulturalako zuzia.** Eusko Jaurlaritzak Kantauri isurialdeko 57 zubi, interes kulturalakotzat izendatu ditu. Horien artean Segurako Zubuaundi dago. Adierazpen honen arabera, guztiek babestuak izan beharko dute.

Joseba Telleria



Argazkian pasa den maiatzaren 9an jaunartzea izan zuten neska-mutikoak.

IDIAZABAL

Etxegarateko lanak hilaren 25ean hasiko dira



Errepide diputatua Etxegarateko bikoizketaren maketa aurkezten.

Datorren asteartean, maiatzak 25, hasiko dira Etxegarate bikoizteko lanak. Egun berean, bariantearen bigarren faseko lanak inauguratuko dituzte. Iñautitiek Benta Txikira bitarteko errepide zatia zabaldu ondoren, Etxegarateko bikoizketako lehenengo harria jarriko dute agintariek. Hala jakinarazi zuen Antton Jaime Gipuzkoako errepide diputatuak maiatzaren 12an Idiazabala egindako bisitan. Errepide diputatuak Etxegarateko bikoizketaren maketa aurkeztu zien Udaletxeko arduradunei eta herritarrei egun horretan. Maketa Kultur Etxean egongo da ikusgai maiatzaren 25era bitartean, goizetan 11:00etatik 13:00-etara eta arratsaldean 5:30-etik 19:30era.

Antton Irizar Idiazabalgo alkate eta Etxegarateren aldeko plataformako kidearen esanetan, maketa herrian ikusteak Etxegarateren bikoizketa gertuago ikusten laguntzen du. Hala ere lanak

bukatu arte, bikoizketa gertutik jarraituko dutela azpimarratu zuen Irizarrek. Besteak beste errepide nagustik beste bideetarako irteera-sarrerak nola geratzen diren zainduko dute.

Udal hauteskundeak

Ekainaren 13an egingo diren udal hauteskundeetarako lau alderdi aurkeztu dira Idiazabalen. Lehenengo aldiz Alderdi Popularrak Idiazabalgo Udaletxerako zerrenda aurkeztu du. Hauek dira Batzorde Elektoralean jasotako zerrendak.

● **Eusko Alkartasuna:** Antton Irizar, Xabier Imaz, Julian Urteaga (independientea), Antton Garmendia (ind.), Aritz Imaz (ind.), Jesus Mari Insausti, Benito Irizar (ind.), Rosa Mendigain (ind.), Anastasio Clavo (ind.), Andres Berasategi (ind.), Esther Saez de Maturana (ind.).

● **Euskal Herritarrok:** Tomas Aldasoro, Loinaz Urrestarazu, Gorka Egialde, Xabier Intxausti, Maria Isabel Izeta, Luis Mari Arozena, Eider Alustiza, Estibaliz Katarain, Arantxa Etxeberria, Ignacio Imaz, Oier Lizarazu.

● **Eusko Alderdi Jeltzalea:** Asier Oiarbide, Jenaro Zabala, Xabier Ariztimuño, Josune Azurmendi, Andres Iparragirre, Aloña Oiarbide, Juan Jose Goikoetxea, Isidro Begiristain, Pako Imaz, Javier Vazquez, Milagros Arregi.

● **Alderdi Popularra:** Lorenzo Luis Soriano, Antonio Finiez, Francisco Sempere, Antonio Amieva, Jose Manuel Anaut, Maria del Pilar Lopez, Rosario Muñoz, Isabel Martin, Maria del Mar Ruth Montero, Maria Teresa del Villar.

San Adrian

Maiatzaren 30an egingo da San Adriango erromeria. Otzaurteraino Udalak jarritako autobustean joan nahi duenak maiatzaren 28a baino lehen eman beharko du izena Udaletxean. Autobusak goizeko 7etan abiatuko dira Mujika jatetxe paretik. Arratsaldean ardoa banatu eta mahaiak jarriko dira plazan bertan afari-merienda egin nahi duenarentzat.

Herri Eskola

Herri Eskolako Guraso Elkarteak eta irakasleak Eskolako festa antolatzen ari dira ekainaren 19rako. Besteak beste, eskolaren inguruko argazki eta material zaharren

erakusketa antolatzeko asmoa dute. Erakusketa osatu ahal izateko herritarrei laguntza eskatu die Herri Eskolak. Etxean argazki edo material zaharra dituztenei Herri Eskolara eramateko eskatu dute. Erakusketarekin batera egun horretarako, ibilaldia, eskulan tailerrak, bazkari herrikoia eta jaialdia antolatzeko asmoa dute.

Administrari laguntzailea

Udalak administrari laguntzaile bat kontratatzeke asmoa du ordezkapen kontratupean lan egiteko. Lanposturako ondoko baldintzak ezarri dira: Lanbide Heziketa I administrazio agiria edo balioidea eta EGA edo balioidea izatea.

Irailaren 6an hasita, 6 hilabete iraungo du kontratuak. Izena emateko epea maiatzaren 31n bukatuko da.

Laburrean

● "Islandia andando" ikusentzunezkoa emango dute maiatzaren 29an, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean.

● Gizarte Ongizate Batzordearen ekimenez, etxetik irteetzeko arazoak dituzten 15 herritar bildu ziren Jubilatuen elkartearen maiatzaren 15ean.

● Antton Garmendia taxitak telefono zenbakiak aldatu ditu: 629 65 41 65 eta 943 187549.

Xabier Urteaga

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

TAXI

Antton Garmendia

☎ 629 65 41 65 - 943 18 75 49
IDIAZABAL

ORDIZIA

Maiatzaren 28an hasiko dira Poltsikoko ikuskizunak Barrenan. Egun horretan, Mikel Markez eta Pako Aristiren 'Tribuaren hitz galduak' ikuskizuna izango da, gaueko 10,30etan hasita.

Ekainaren 4an, 'Eunate' lanaren emanaldia izango da Josetxo Goia-Arribe eta Pello Ramirez ordiziarraren eskutik. Saxo eta txelo kontzertua izango da. Gaueko 10,30etan hasiko da saioa.

Ekainaren 11n, Joseba Tapia eta Koldo Izagirrerren 'Apoaren edertasuna' ikuskizuna izango da ikusgai, 22:30etatik aurrera.



Berriro Lapuebla de Labarkara

Ekainaren 20an Arabako Lapuebla de Labarka herrian ospatuko den Araba Euskaraz egunean lan egiteko bo-

Poltsikoko ikuskizunak



Oroith abesbatza saritua

Orain bi asteberu Aragoi aldean izan genituen Oroith Abesbatzako neska-mutilak. Bertan Benasque Hiria saria zegoen jokoan eta ordiziarrek bigarren postua eskuratu zuten. Irabazleak Iruñeako Aizaga Abesbatzakoak izan ziren. Zazpi taldek hartu zuten parte.

londres edo boluntario bila dabil Jakintza Ikastola. Area osoko lanak hartzeko asmoa dute Ikastolakoe eta horretarako 160 lagun behar dira.

Antolaketa lanak ahalik eta ondoen egiteko, ekainaren 1erako izena ematea komeni da, Ikastolako bulegoetan. Telefonoa: 943 160540.

Duela 5 urte 160 lagun joan ziren Ordiziatik Errioxara Lapueblako ikastolari laguntzera eta aurtan ere la-

guntza bera eskaini nahi diote, kontutan izanik Lapuebla 850 biztanleko herria dela.

San Fermin zozketa

Herrian hain tradizio handikoa den San Fermin zozketa martxan jarri da jada. Azken bi urteotan bezala Txindoki Tabernak hartu du zozketa antolatu eta boletoak saltzeko ardura. Badakizue hemendik ateratako irabazien parte bat San Jose zaharren egoitzara zuzentzen dela (sariak eta gastuak salbu)

eta, beraz, antolatzaileak errekor guztiak apurtuko direnaren ustearekin hasi dira lanean. Gogoratu iaiztik txartelen salneurria bikoiztu egin dela eta orain 50 pta.ren truk eskuratu ditzaitezula. Zozketa San Fermin egunean egingo da eta beti bezala sariak ez dira nolana hikoak izango.

Asteberu alaia

Ertaroko peria zela eta erabat itxuraldaturik egon ziren herri guneko kaleak maiatzaren 8an eta 9an. Eta ez kaleak bakarrik, baita jendea ere. Izan ere garai hartako jantziak soineratu eta giro politean joan zen larunbat gauen burututako afaria. Nafarroa aldetik etorritako hainbat postuk ere ingurua edertzen lagundu zuten eta, nola ez, talde desberdinek egindako ekitaldiek giroa pizteko baliagarriak izan ziren. Honezaz gain "Los Panchos" musika taldea ere Kiroldegian izan genuen eta jende gehiegi hurbildu ez bazen ere, esan bertaratutakoek giro ezin hobeaz gozatzeko parada izan zutela.

Aitor Calvillo



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Presio altuko solariuma

- Azken teknika eta nobedadeak
- Ezkontza eta ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.
- Makilajeak Manikura...
- Eta orain betiletako kolorea eta permanentea

LAZKAO

Txakurjabeei oharra

Udalak bando bat zabaldu du, non Lazkaoko txakurjabe guztiei ondorengo ohar hau igortzen dien. Txakurrei buruz jasotzen ari diren ke-xak ikusirik, Lazkaoko Udalak, 1998ko maiatzaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako animalien edukitzeari buruzko ordenantza, betearazten hasiko da.

Zensatuta dauden txakur guztien jabeei ordenantza honen kopia bana bidali zaie, non garbi ikusten den, txakurren eta beraien jabeen eskubide eta betebeharrak zein diren. Gainera, maiatzaren 15an hasita 15 eguneko epearen barruan, Udal-tzaingoak txakurjabe guztiei ordenantza honen berri emango die eskatuz gero, eta gainera, arau hauek ez betetzeak ekarriko dituen arazoen berri adieraziko zaie. Hamabost egun hauek pasa ondoren, ordenantza hau zehatz mehatz betetzen hasiko dira.

Kotxe gidariei ere abisua

Agauntza ibaiko lanak direla eta, ezin izango da datozen 4 edo 5 hilabeteetan Uhaitz


kalean aparkatu. Kale hau errekarren kontra dago, herriko plazara iristen dena. Al-boka taberna eta Kutxaren tartetik. Beraz, badakizue, datozen hilabeteetan ez da bertan aparkatzerik izango, errekan lanean ari direnean behintzat.

S.O.S. -Kosovo

San Benito Ikastolan

San Benito Ikastolako ikasleek, Kosovoko errefuxiatuen aldeko diru bilketa solidarioa burutu dute ikastolako partaideen artean. Giza Eskubideen aldeko, armadek eragindako gogorkeriarren aurkako eta haien sorterrria utzi behar izan dutenen aldeko elkartasun ekimen honetan, 68.000 pta bildu dira, laguntza sinboliko honen kudeaketa, Donostiako SOS-Balkanes Gobernu Kanpoko Erakundearen arduraz izango delarik.

Urtero egiten dute ikastolako ikasleek antzeko kanpainaren bat, Kubako ikasleentzat material didaktikoaren bilketa dela, Sohütako ikastola edo Saharako errefuxiatuentzat diru bilketa dala, urtero elkartasunak, toki bat izaten du San Benito



Eibarren ospatuko diren Espainiako Txapelketetan parte hartzeko eskubidea ematen dio.

Lander Hijona Espainiako Txapelketetara

Lander Hijona lazkaotar gazteak, Espainiako Txapelketan parte hartzeko marka minimoa lortu zuen salto hirukoitzean. Lander, bigarren gelditu zen Gipuzkoako taldekako txapelketan 13,79ko marka bikainarekin, garailearengandik zentimetro bakar batera, eta marka horrek,

Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoen artean.

San Benito Ikastolan goizeko 11,30etan.

Matrikulatu D ereduan

EKBren deialdiari jarraituz, Beasaingo Ai Geala eta Lazkaoko GEEKEk antolatuta, kanpaina bat burutuko da, datorren urtean, Batxilergoan, Unibertsitatean edo Lanbide moduluetan matrikulatuko diren ikasleak, D ereduak aukeratu dezaten matrikula hori egiterako garaian.

Ikasle euskaldunek dituzuen eskubide eta abarrei buruz hitzaldi bat emango du maiatzaren 25ean Unibertsitateko irakasle batek,

'Saguzarren mundu ezkutua'

Izenburu honekintxe eman du hitzaldia Eneko Imaz Amianok, Biologian lizentziatua, datorren ekainaren 2an, asteazkena, Maizpide Euskaltegiko areto nagusian gaueko bederatzieta. Aukera paregabea izango dugu, beraz, hain sentimendu desberdinak sortzen dituen animalia honi buruzko xehetasun gehiago jakiteko.

Urko Irastorza



Aukera ezazu zurea, guztiona...

Euskal Eskola Publikoa

**URDANETA-OIANGUREN
B. H. INSTITUTUA**

☎ 943 88 08 62 - 943 88 08 66

- Kalitatezko heziketa, euskalduna eta dohainik.
- Eskaintza osoa herrian bertan 3 eraikuntzetan banatuta (2 urtetik 18ra arte).
- batxilernetan aukera zabala: bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Humanitateak eta Giza Zientziak, Natur eta Osasun Zientziak.
- Erdi mailako heziketa zikloa: Merkataritza teknikaria (1.400 ordu)
- Goi mailako ikasketetarako bide egokiak.
- Ikasleak etorkizunean izan ditzaketen interes eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

Izen emateko epea: Ekainaren 1etik 9ra

BEASAIN

Esteliko alkatea bisitari



Joan zen maiatzaren 5ean David Valdivia Pereira Esteli (Nikaragua) herriko alkatea Beasainen izan zen bisitan, Beasainekin harremanak sakontzeko asmoz. Bide batez, Jon Jauregi alkateak Mitch hurakanaren ondoren hemendik bidalitako diru laguntzen berri eman zion. Valdivia jaunak eskerrak eman nahi izan zizkion Beasaingo herriari, eta emandako 15.380.000 pezetak zertarako erabiliko diren azaldu zuen.

“Benetako esker ona eman nahi diot Beasaingo herriari. Ez Mitch hurakana dela-eta egin duenagatik, aurretik ere egiten ari zena-gatik baizik”, esan zuen Valdiviak. Laguntza horiei esker gaur egun Centenario auzoak ur beltzen zerbitzua du. Lehen ez zegoen horrelakorik, eta ur beltzak kalean gertzen ziren kutsadura iturri bihurtuz. *“Garrantzitsua da behar horien aurrean, gu oso ondo ezagutu gabe, ‘hemen gaude’ esanez Beasainek lagundu izana —esan zuen—. Horregatik beste nikaraguar batek esandako hitzak errepikatuko ditu: Elkartasuna herrien samurtasuna da”.* Valdiviaren esanetan bide hori da mundu hau alaitzeko bide bakarra, eta ez Kosovon

gertatzen ari dena: *“Bi alde-ek egiten ari direna aurpegi-ratu daiteke. Ez bonbardeaketak, ez hilketak etnikoak, ezin dira justifikatu. Guk jarraitu beharreko borroka senidetzearena da”.* Beasaingo alkateak momentu zailetan emandako adorea ere eskertu zuen.

Estelirekin zuzenean hitz emandako diru-laguntzak iritsi direla esan zuen alkateak. Gobernuari iritsitako laguntzetatik, ordea, Estelik ezer ez duela jaso gaineratu zuen. Estelik jaso duen guztiaren kontrola ezarri du, eta ondoren laguntza eman duten talde ezberdinei kontuak erakutsiko dizkie; Jon Jauregi Beasaingo alkatearen hitzetan, fakturak eta guzti. Beasaingo biztanleek 3.058.000 pezeta eman dituzte, eta horri Udalak hitzartutako 12.300.000 pezetak gehitu behar zaizkio. Diru hori Esteli eta Somotora bidaliko da. Gainera, Udalaren aurrekontuaren % 0,7-aren zati bat Nikaraguara laguntzera joan nahi duena bultzatzeko erabiliko dela azaldu zuen Jon Jauregik. Jose Luis Elorza, Gizarte Ongizate zinegotziak gaineratu zuenez, azken udal batzarrean Hirugarren Munduko herrirentzako diru-laguntzetan Esteli eta Somotorenak le-



EAJ-EA elkarrekin

Ekainaren 13ko udal hauteskundeetan EAJ eta EA alderdiak elkarrekin aurkeztuko dira. Maiatzaren 7an egin zuten zerrendaren aurkezpenean eta Jon Jauregi (EAJ), oraingo alkatea, izango da zerrendaburua. Ordena jarraituz, hauetxe dira lehenengo 10ak: Josi Insausti (EA), Arantxa Aseginolaza (EAJ), Ana Asla (Independentea), Jon Berbel (EA), J. Antonio Guirado (Independentea), Patxi Plazaola (EAJ), Pello Garaialde (EA), Jon Olano (EAJ) eta Alfonso Goenaga (EA). Oraingo legegintzaldian, EAJk eta EAK, 9 zinegotzi dauzkate.

hentasuna izan dezatela erabaki zen.

Arazoak areagotu

Mitch hurakanak ondorio latzak utzi zituen Estelin. *“Lehen gosea bazegoen, orain are gehiago, etxebizitzarekin arazoak bazeuden orain lehen zeudenak baino gehiago behar ditugu. Lehengo arazoak areagotu egin dira”*, adierazi zuen Esteliko alkateak. Hurakanak nekazal lurretako bide sarean 190 kilometro suntsitu zituen, eta zazpi zubi bota. Ibaiak Esteli bi zatitan banatzen du. Hirigunean erori ziren hiru zubietatik bi eraikitzea lortu dute. Panama Soberana ize-nekoa altxatzeko, ordea, diru asko beharko da Valdiviak esan zuenez, eta horregatik momentuko lan bat egingo dute, datorren neguan zubi hori erabiltzen duten 4 auzotako biztanleek hiri erdira joan ahal izan daitezten.

108 baserri deuseztuta ge-

ratu ziren, eta hirigunean 168 etxebizitza. Horiez gain, 450 etxebizitza kaltetuak izan ziren. Horri guztiari historikoki Estelin egon den etxebizitza eza gehitu behar zaio, Valdiviaren esanetan 2.000koa. Orain plan berezi baten bidez 142 etxebizitza eraikitzen ari dira, baina horrekin ez da etxebizitzaren arazoa konpontzen. 1998ko uzta galdu egin zen, eta lehen tabakoa landatzen zen 80 hektareatan kalteak izan dira, eta lur emankorra murriztu egin da. Zenbait Gobernu Kanpoko Erakundeekin jakiak lanaren ordezkari ematea koordinatzen ari dira, eta janaria hiri garbitzen duen jendeari ematen zaio. *“Lehen oposizioak Nikaragua iparraldeko hiri zikinena Esteli zela esaten zuen. Orain ez dira garbiena dela esatera ausartzen”*, adierazi zuen Valdiviak.

Jon Ordoñez

ATAUN

Gipuzkoako Eskolarteko XIX. bertsolari txapelketa

Haitz Aierbe, Aitzol Munduate, Iban Urdangarin eta Oier Zurutuzak osaturiko taldea izan genuen ordezkari Gipuzkoako Txapelketarako kanporaketan.


Eskualdeko kanporaketa hau joan den ostiralean, maiatzak 14, ospatu zen Legazpiko Haztegi ikastolan. Kronika hau idazterakoan sailkapenaren berririk ez bagenuen ere, itxaropentsu agertu zen Jexux Goikoe-txea laukoteak txapelketan zehar egingo duen lanari dagokionean.

Legazpin sailkatu ziren lau taldeak gaineratiko eskualdeetan sailkaturiko taldeekin arituko dira lehian Billabonan, hilaren 28an, eta Olaederra Kiroldegian sailkatzen diren bi bertsolariak, txapelduna eta txapeldunordea, izango dira Mungian, ekainaren 30ean, Gipuzkoa ordezkatzeko dutenak Euskal Herriko txapelketan. Aurten gainera, Ipar Euskal Herriko, Arabako eta Nafarroako ikasleek ere hartuko dute parte.

Gipuzkoako pelota txapelketako finalerdietara

Giro ederra sortu zen maiatzaren 8an San Gregorion. Zelai Udal pelotalekuan Gipuzkoako txapelketako finalerdietarako sailkatzeko partiduak jokatu baitziren.

Parte hartu zutenen artean ziren lau talde ataundar. Neska alebinetan Garazi Aierbe, Garazi Etxeberria eta Maialen Sukiak alde batetik eta Bidatz Badiola, Alaitz Etxeberria eta Maider Gandariasek bestetik, Azpeitiko Ikasberriren aurka jokatu ondoren finalerdietarako sailkatzea lortu zuten. Mutilen artean berriz, Xabier Altuna, Unai Arizmendi eta Harri Herguedas aritu ziren Bergarako Maria Lagundiaren aurka eta ondoren Aizarnazablen aurka. Hauek ere finalerdietara iritsi ziren. Baita Jon Knight, Iraitz Goikoe-txea eta Asier Gonzalez ere Oñati eta Zarauzko bi ikastetxeren aurkako partiduak irabazi ondoren. Zorionak beraz, guztiei eta zorte on aurrerantzean.



Elizaren berrikuntzak aurrera doazen heinean, azken hilabeteotan San Martindarrok gora begiratu eta sentitu izan dugun hutsunea beterik dago berriro ere. Erloju berria jarri dute!

'Generali' Autonomikoan

Futbol sasoiaren amaierarako hiru partidu falta direlarik, lehenengo mailan jokatzen duen 'Generali' futbol taldeak 3 puntuko alde ateratzen dio bigarren postuan doan taldeari eta 5 puntukoa hirugarren taldeari.

Kontutan izanik lehen bi taldeak sailkatzen direla, jada ospatzen has gaitezke bikain jardun duen talde honen igoera!

Labur-labur

● Herriarteko pelota txapelketan Ataunek galdu egin zuen Eibarren aurka. Hurrengo partidua maiatzaren

22an jokatuko dute, hemen, Ataunen, Tolosaren aurka. Eta hurrengo ostiralean, hilaren 29an, joanekoa Tolosan. Zorte on beraz!

● Maiatzaren 7an aurkeztu zen Ataungo historia eta izaera era ikusgarrian laburbiltzen dituen 'Lehena eta Geroraren Zubia' diaporama. Bertan izan zirenen artean zen Joxemiel Barandiaranen iloba Pilar ere. Aukerarik baduzu, ikus ezazue diaporama, benetan merezi du eta!

● Joan den astean hil zen Juliana Galparsoro. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña

URBITARTE sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

ORMAIZTEGI 'Denak etxerantz' plataforma sortu da

Martxoaren 27an hainbat herritar elkartu eta Euskal presoak jasaten ari diren errepresibideen aurrean iritzi eta borondate ezberdinak batzen dituen plataforma sortu zuten. Lehenengo bile-ra hartan plataformari izaera irekia, zabala eta anitza ematea erabaki zen. Hain zuzen edozeinek parte har dezakeen plataforma izatea.

Sortu berria den plataformak hau ideien eztabaida gune izango da, beti ere hiru helburuetan oinarritua egongo delarik:

- ✓ Euskal presoan dispersioari amaiera ematea, Euskal presoak Euskal Herrira leloa egi bihurtu dadin.
- ✓ Kode penalaren 90. artikulua berehalakoan gautzatzea. Hau da zigorraren hiru laurdena bete duten presoek askatasuna ematea. Beraien artean egoera horretan aurkitzen den herritar Mikel Zumarragari askatasuna ematea.
- ✓ Kode penalaren 92. artikulua berehalako gautzatzea. Hain zuzen egoera jasan ezinean eta gai-

xotasun sendaezinak dituzten presoan askatasuna.

Hiru helburu hauetan oinarritzen den plataforma honi baietza eman dioten herritarrek ugaritu izan dira. Batzuek alderdi politikoen ordezkari gisara, beste batzuek giza eskubideen ordezkari bezala eta beste batzuek erapertsonal batez azaldu izan dute beraien atxekimendua.

Dena den sortu berria den plataforma honekin bat egiteko aukera ez da amaitu. Hain zuzen plataforma honetako ordezkariak hileroko azken larunbateetan, eguerdiko 12etan, udaletxe azpiko aretoan elkartuko baitira. Beraz, plataformaren berri izan nahi duzuenok, etorkizunean izango diren bilertan parte har dezazuen gonbitea luzatzen zaizue.

lurrita eta Olariaga odol-emaile omenduak

Dagoeneko hainbatetan aipatu izan dugun bezala, Ormaiztegin ere badugu odol-emaile elkarteak. Bertako partaide kopurua ez da txan-

Oinezkoentzako ibilbide erosoak prest

Azken hilabete hauetan herrigunean egin izan diren eta egin ari diren hainbat lanen bitartez (parke berria, margoketak, zoru konponketak...) eguneroko bizitzan txukuntasuna osagarri garrantzitsu bihurtu zaigula esan dezakegu.

Herrigunean erosotasuna agerian ikus baliteke ere, herri inguruan ere gauza bera gertatzen dela esan dezakegu. Zumarraga eta Gabiriara doazen errepideen hertzetan egin diren konponketa lanek oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna bermatzen dute. Zumarragarako bidea hartuz gero, Alegiko bidegurutzeraino oinez edo txirrinduz ibili ahal izateko bide gorria eraiki dute. Gabiriarako bidean, berriz, oinezkoentzako espaloia eta argiteria lanak egin dituzte.

txetakoa; 130 kide inguruk osaturiko elkarteak baita. Urtean bi odol ateraldi izaten dira bata igaro berria dugun martxoan eta bestea udazken aldera.

Urtean behin berriz, Gipuzkoako odol-emaile elkartearen urteko batzarra ospatzen dute. Aurtengoa XXIV. batzarra izan da eta Beasainen ospatu zen. Egun horretan hainbat ekitaldi izaten dituzte eta beraien artean aipagarrienetarikoa odola ematen neurririk gabeko eskuzabaltasuna izan duten elkarteakideei egiten zaaien omenaldia izaten da. 25 aldiz odola ematera iritsi diren elkarteakideek zilarrezko do-

mina jasotzen dute, 50 aldiz eman dutenek, berriz, urrezkoa.

Benetako eskuzabaltasuna agertzen duen ekintza hau 25 aldiz aurrera eramanez izan dutelako omenduak izan diren artean Kasilda Iurrita eta Juan Olariaga herritarrek ditugu. Bi herritar hauek zilarrezko dominaren bitartez elkartearen eskeroa jaso zuten. Lerro hauetatik gainontzeko herritarrok ere eskertza horrekin bat egin nahi dugu Kasilda eta Juani gure zorian berroena bidaliz. Beraien ekintza hau eredu garri izan dakigula guztioi.

Aitziber Murua

ZALBIDE
SAGARDOTEGIA
Arraiak parrilan



© 943 65 21 76


ABALTZISKETA

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.
KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Euskadiko motokros txapelketako lehen saioa

Beasainen, maiatzaren 22an

Euskadiko motokros txapelketarako baliagarria izango den proba jokatu da bihar, maiatzak 22, Beasainen, Uharkaldean, Igartza atzeko zelaian. Arratsaldeko 5etan hasiko da txapelketa, baina entrenamentuak 3,30etan. Zelaia egokitu egin behar izan dute txapelketarako.

Euskadiko motokros txapelketak zazpi proba izaten ditu eta Beasaingoa, aurtengo edizioko lehenengoa izango da. Entrenamendu saioak arratsaldeko 3,30etan hasiko dira eta lasterketa bera, 5etan. Jose Antonio Barandiaran antolatzaileetarikoa batek jakinarazi digunez, normalean bi lasterketa izaten dira: lehenengoan kadeteek eta junio-



rrek hartzen dute parte, eta bigarrenengoan 2. eta 3. urtetako juniorrek eta seniorrek. Maila bakoitzean bi txanda egiten dira eta puntu gehien lortzen dituenak izaten da garaile.

Guztira 60 parte hartzaile espero dira Beasainen. Motorrak 80koak, 125ekoak eta 250 zentimetro kubikoak izango dira.

Inguruko onenak

Barandiaranen arabera, Euskadin momentuan ez

dago maila onegierik, baina inguruko onenak etorriko dira Beasaingo Saria jokatzerara. Hernaniko Iker Lujanbiok parte hartuko du. Kadetea da bera baina etorkizun handia duenez, seniorrekin parte hartzen du. Espainiako Txapelketan lehenengoan artean ibiltzen da. Kadeteetan Nafarroako txapelduna den Aitor Olabarri etorriko da. Julian Alonso Arabako txapeldunak, Daniel Soria eta Oscar Juarez nafarrak, eta Espainiako txapelketan parte hartu duten Roberto Rodriguez eta Muerza espainiarrak ere Beasainen izango dira. Beasaindarrek ere hartuko dute parte: Jokin Barandiaran, Xabier Jimenez, Jon Jimenez eta Raul Bonilla.

Zirkuitu txikia, baina polita

Antolatzaileen esanetan, partehartzaile gehiegi izango dira, "zirkuitua polita baina txikia izango baita,

hiru itzuliak zenbatuz 800 bat metrokoa". Uharkaldean erabat laua denez, lurra ekarri, hondeagailu batekin bildu eta jauziak jarri dituzte. Jauzi luzeenak 22 metro inguru izango ditu eta jauzi bikoitzak ere izango dira. "Motokrosa baino gehiago superkrosa izango da, ez baita leku aldapatsu batean egingo, lauan baizik", azaldu du Jose Antonio Barandiaranek. Eguraldiaren laguntza ere beharrezkoa dute antolatzaileek, horrela ezetan, zirkuitua laua denez, ura bildu eta lokatza gehiegi sortuko delako.

Antolakuntza lanak sortutako gastuak ordaintzeko sarrera kobratu egingo zaie helduei; gazteek doan sartzeko aukera izango dute.

Jose Antonio Barandiaran bera zenbait txapelketetan aritzen da eta hortik sortu zen Beasaingo Saria antolatzearen ideia. Barandiaranek Udalaren eta Federazioaren laguntza izan du antolakuntzan. Datozen urteetan ere jarraipena izatea nahi du Barandiaranek, nahiz eta beste lursail bat aurkitu beharko duten, Uharkaldean etxeak egingo baitituzte. Barandiaranek aurreratu digunez, udazkenean agian beste proba bat egingo da.

J.O.G.

1974an ere egin zen

1974. urtean San Inazio Kalea koadrilak antolatu zuen lehenengo aldiz motokros proba bat Beasainen, festetan zerbait ezberdina egiteagatik. Xabier Aierza, Jose Antonio Sarasola, Jesus Mari Erguin eta Martin Erguin antolaketa lanetan aritu ziren. Olanoko zelaia eta Urbi baserriko lurretan jokatu zen. Lagun artekoa izan zen, eta zazpi motorzalek hartu zuten parte. Arrakasta izan zuen probak, jende asko gerturatu baitzen ikuskizuna ikustera. Motoklub bat ere antolatu zuten. Hurrengo urteetan beste hiru proba antolatu zituzten, orain Hunolt lantegia dagoen tokian. Horiek, ordea, profesionalagoak izan ziren, eta Ricardo Lopez Euskadiko Txapeldun bilbotarrak hartu zuen parte.



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



Festak ondo pasa!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

Bittor Arroniz eta Amaia Insausti maratolariak

Turinerako bidea hartu zuten Bittor Arroniz beasaindarrak eta Amaia Insausti olaberritarrek bertako maratoloian 42,195 kilometro korrika egiteko asmoz. Azkenean arazo muskularrak zirela eta, Amaiak ez zuen parte hartu eta Bittorrek 28. postuan bukatu zuen 2ordu eta 32 minutuko denborarekin.

Udaberri aldean ez da maratoi asko izaten eta Turingoak aukera ona zirudien. Denbora onak ziren beste urteetakoak baina ezusteko bat aurkitu zuten zirkuitua aldatua zegoen eta oso gogorra izan zen, aldapa askorekin.

Turingo esperientzia

Amaiak ez zuen parte hartu. Azken asteetan nahiko kargatuta zegoen eta azkenean medikuak esan zion ez zegoele tope-topean. "Azken 15 egunetan atsedean hartu nuen errekuuperatzeko baina ez nintzen erabat sendatu. Maratoi batean egoera onenean egon behar da, bestela agian erdia ondo egingo duzu baina azkenean ordaindu egiten



da. Orain Laredoko maratoiaren aukera dagoenez orduarte uztea erabaki genuen".

Bittor ondo prestatuta zegoen, testen emaitzak oso onak izan ziren, "eta zirkuitua ikusi eta oso gaizki". Aldapa haiek ikusita, 2:30etik jeisteko zuen asmoa oso zaila zen lortzea, "saiatu nintzen baina ezinezkoa izan zen. 38. kilometroraino ondo joan nintzen baina azkenean muskularki, kajatik... oso gaizki bukatu nuen".

Zirkuitua Diego Garciairekin ikusi zuten, berak esperientzi haundia dauka eta lehen erdia lasai hartzeko esan zion Bittorri. "Diego Garcia oso ondo portatu zen gure-

kin. Berarentzat lasterketa oso garrantzitsua bazen ere hasi aurretik nerekin egon zen, animoak eta aholkuak ematen".

Hainbeste prestatu eta zirkuitu zaila dagoelako denbora ona ez egitea pena bat da. Kanpora ateratzekotan Londres eta Rotterdam dira zirkuitu onak. Donostiakoa ere oso zirkuitu ona da baina ez dago behar hainbat promozionatua. "Hemen Behobiak hartu zuen izena eta Donostiako maratoloia piska bat alde batera geratu da. Daukan arazo handienetakoa eguraldia du, haize asko edo euria egiten baitu gehienetan udazken alde horretan. Ibilbidea aldatzea pentsatzen ari dira, oraingoa kilometro

askotan hondartza ondoan doa eta hor haizeak gogor jotzen du", diote maratolariak.

Turinen festa bat izan zen. Igaro ziren inguruko herri guztietan festa bat bezala hartzen zuten lasterketa, musika banda eta guzti, giro oso ona zegoen. Italiko txapelketa zen eta herri gehiagotatik pasa nahiko zuten lasterketa eta horregatik aldatuko zuten zirkuitua.

Maratoiaren zailtasunak

Donostiko maratoloia egin zuen lehena Amaiak. Ez zuen espero bezain lasterketa ona egin, "kilometroa 4 minutu eta 3-5 segundutan egiteko esan zidaten prestatzaileek, baina ni gustora sentitzen nintzen eta kilometroko 4 minutuko erritmoan joan nintzen, 30. kilometroan oso ondo nindoan baina 35. kilometroan gainbehera etorri zitzaidan. Hor ikasi nuen prestatzaileek ezarritako erritmoa jarraitu behar dudala, ezin dudala segundu batetan ere jeitsi". Bittorrek ere badaki zein garrantzi duen bukaerara ondo iristek, "ni Turinen ondo nindo-

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterol, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 BEASAIN



ILEAPAINDEGI MISTOA

- ✓ Solarium 4.500 pta. 10 saioko bonoa
- ✓ Depilazioa
- ✓ Kolore eta permanenteak, astelehen, astearte eta asteazkenetan %5eko deskontuaz

Rekartalde, 30 ☎ 943 88 34 86 BEASAIN



AUTO ALDAGAIK

ARATZ



**Automobilien ordezkot piezak
eta osagarriak**

Katea auzoa z/g ☎ 943 16 23 29 Faxe: 943 16 23 21 BEASAIN

an 38. kilometrorarte eta azken 4 kilometroetan 2 minutu galdu nituen. Garrantzitsua da erritmoa 4,03 jarri badi-zute hortik ez jeistea, lehen erdian 4,03-4,05 tartean joan eta bigarren zatian duzun guztia ematea. Eta hori zaila da, haseran ondo zoaz eta behar duzuna baino azkarreago joaten zara. Hori maratoiak eginez ikasten da”.

Bittorrek dionenez, lehenengo maratokia esperientzia hartzeko da, 2.a eta 3.a ere garrantzitsuak distantziari neurria hartzeko. Eguraldi ona egin behar du, zirkuitua egokia izan behar da eta zorte piska bat eduki behar da denbora ona izateko. Amaia esanetan ezin da ezertan despastatu, detaila asko zaindu behar dira: ondo edan, erritmo egokia eraman...

“Lehengo batean 1.500 meto egiten duen Iruñako lagun batek esan zidan, berari lasterketa txar bat ateraz gero 15 egun barru beste aukera bat duela. Maratoiari, berriz, berritoki prestatzen hasi eta urte erdi batean ez duzu beste aukerarik”, dio Amaiak. “2 ordu eta pikoko lasterketa daukazu eta hori egin behar duzu, ondo edo gaizki. Psikologikoki oso gogorra da hori. Dagoen auke-



ra da lasterketa erdian gaizki zaudela ikusiz gero, utzi eta beste bat prestatzea da”, gehitu du Arronizek.

Bittorrek esperientzia luzeagoa du maratoiari, Italiako hau bere 7.a izan baita. Orain arteko denborarik onena Turinen egin duenaren berdina zuen, 2:32 Donostian egina. CAFetik Hong Kongera joan zenean han ezaguna egin zen, maratoi erdian 2. egin baitzuen. Bertako maratoiari ere ihes egin da ibili zen nahiz eta azkenean afrikarrek aurrea hartu zioten. Hau dela eta telebistetan atera zen eta hoteleko ezagunena izan zen Bittor.

Entrenatzea da gogorrena

Gogorrena entrenamendua da beraientzat, egunero ba-



karrik ibiltzea, eguraldi ona edo txarra egin hor ibiltzea. Astean 120-145 kilometro artean egiten dute. Lasterketa ezberdina da: “Nik Turinen oso gaizki bukatu banuen ere, asko disfrutatu nuen lasterketan zehar”.

Amaiak entrenatzaile bezala Pako Aiestaranekin jarraitzen du, baina hau Extremaduran dagoenez, zaila da harreman ona izan eta entrenamenduak ondo eramatea, sentsazioak kontrolatzea. Iruñako mediku batekin dabil, hau Pakok Osasun ezagutu zuen eta harreman handia duenez berarekin dago. Bittor Lazkaoko Kemen kirol osasun zentruarekin ari da prestatzen, “bakarrik ari zara entrenatzen eta oso garrantzitsua da prestatzailearekin egunero hitz egitea”.

Aurrera begira

Bittorrek oraingoz atseden hartu nahi du, gero Donostiko maratokia prestatu edo krosak egingo ditu. “7 maratoi eginda nekatuta nago, oso gogorra da, baina badakit berehala jarriko zaidala maratokia egiteko gogo”.

Maratokia prestatzeko 5 hilabete behar dira horretarako bakarrik. “Urtean 2 maratoi egiteko bakoitzari 5 hilabete dedituta urte guztia behar da horretarako, ez opor eta ez ezer, hori oso gogorra da. Lana eta korrika bakarrik, beste ezer egiteko denborarik ez dago”, diote.

Kirolari bezala helburua disfrutatzea da Bittorrentzat, “asko gustatzen zait korrika egitea, piskanaka-piskanaka mundu honetan sartzen joan naiz eta urtetik urtera hobera noa. Marka on bat lortzea 2,30tik jestea gustatuko litzaidake, bestela disfrutatzea”. Amaia entzatzat ere, “piskanaka denborak jeitsi eta inportanteena zure burua ondo ikusi eta gustora sentitzea da. Askotan dudatan jartzen duzu horrela ibiltzeak merezi ote duen baina entrenatzen ez dudanean zerbait falta zaidan sentsazioa izaten dut”.

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

PELUQUERÍA Pascual

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
943 882 248 BEASAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

- Ile tratamenduak (dohaineko analisia)
- Dermokapilar masaiak
- Koloretan azken teknikak
- Amaierako eta tratamenduzko produktuetan gama zabala

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza obra social



1940 inguruan, Karmeliten ikastetxekoak

1940. urte inguruan ateratako argazkia da, Beasaingo Karmeliten ikastetxeko ikasleak dira guztiak.

Zuzenketa:

Aurreko alean atera genuen argazki zaharrean akats bat baino gehiago zegoen eta lerro hauetatik zuzendu egin nahi dugu, Josetxo Zufiaurreri esker. 1959. urtekoa da argazkia, ez 1948koa, La Salle ikastetxeak 50 urte bete zituenekoa. Bertan azaltzen direnak: **Goian:** Juantxo Aiestaran, Lukas Gorrotxategi, Pako Etxezarreta, Pako Esnaola, Josetxo Zufiaurre, Jose Luis Telleria, Juan Migel Mendizabal, Santiago Barcenilla, Gregorio Irizar eta Aitor Garmendia. **Beheran:** Simon Garaialde, Angel Del Olmo, Jose Luis Muñoz, Faustino anaia, Martin Jose Lasa eta Martin Albisu.

HYUNDAI
AUTOS HYUMENDI, S.L.

Goierriko agentzia ofiziala

Tel./Faxa: 943 883 400
Mugikorra: 609 481 246
Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN



Xunai ARTEA

Jokin Telleria

MARKETERITZA
ARTEDER ETA
ESKULANETAKO
MATERIALA

☎ 943 16 23 44
Esteban Lasa, 2 C BEASAIN

BATXILERGO IKASKETAK JAKINTZA IKASTOLAN

Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxa: 943 16 07 90 E-mail: ordizia@ikastola.net

Eskaintzen diren modalitateak:

- ➔ Natur eta Osasun Zientziak
- ➔ Giza eta Gizarte Zientziak

⇒ ESKOLA EREDU PROPIOA

⇒ EUSKARAZ BIZI: Gelatik at ere euskal giroa.

⇒ GERTUKO HARREMANA GURASO ETA IKASLEEKIN

⇒ KALITATEZKO ESKAINTZA: emaitza onak ikastola eta Selektibitatean

**JAKINTZA
IKASTOLA**

ORDIZIA



JAKINTZA ETORKIZUNEN GILTZA

Ikastolako ateak zabalik izango dituzu

EKAINAREN 1ean,

ARRATSALDEKO 6etatik AURRERA

ZATOZ EZAGUTZERA!!!!



CAF ha iniciado la entrega de una serie de 10 trenes para los Ferrocarriles de Finlandia (VR). Estos trenes prestarán servicio en el área de Helsinki y ciudades próximas. Con velocidad de intercity, aceleración de metro y recuperación de energía de frenado. Máximo espacio reservado para pasajeros instalando el equipamiento principal en el techo del tren. Se han tenido en cuenta las facilidades necesarias para minusválidos. Finalmente cabe destacar el excelente aislamiento acústico y térmico, y la preparación del tren para su funcionamiento en las severas condiciones invernales de Finlandia.

CAFek 10 tren bidalketarik ekin dio, Finlandiako Trenbide konpainiarentzat (VR). Tren horiek Helsinkiko eta inguruko hirietako zerbitzua beteko dute, intercity-ren abiaduraz, metroaren azelerazioaz eta balazta energia berreskuratuz. Bidaiariarentzako ahalik eta espazio gehien erreserbatu da, ekipamendu nagusia trenaren sabaian instalatuz. Kontuan hartu dira elbarritasunen bat duten pertsonentzako beharrezkoak diren erraztasunak. Azkenik, aipatu beharra dago trenek isolamendu akustiko eta termiko ezin hobea dutela eta ongi prestatuta daudela Finlandiako negu baldintza funtzionatu ahal izateko.





CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.



GOIERRI LANBIDE ESKOLA

24 Posta Kutxa
☎ 943 88 00 62 / 66
Faxa: 88 83 51
ORDIZIA



1999/2000 IKASTURTERAKO GOIERRI LANBIDE ESKOLAREN ESKAINTZA

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIA BATXILERGOA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (ADMINISTRARITZA)

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- MEKANIZATUA
- GALDARATEGI- SOLDAKETA

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- METAL ERAIKUNTZAK
- INDUSTRIAL EKIPOEN MANTENIMENDUA
- ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK

IZEN EMATEA:
ekainaren 1etik 9ra
ikastetxeko bulegoetan
goiz eta arratsaldez

GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN,
BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOLTSA

**HEZIKETA
TEKNIKOKO
ELKARTEA
HETEL**